

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 18a / 678. zenbakia



SAN JUANAK 04

*Arrasateko Udalbatzak
San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizue
arrasatear guztioi*




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

KALEINKESTA/ Urtetik urtera San Juanak hobera ala txarrera doiez?



ASIER BERGARETXE
Langillie



URTZI AMIANO
Langillie



JOSE MARI BAÑOS
Erretiraue



MIREN GRANADOS
Langillie



IZASKUN JAUREGI
Etxekoandrie



LOURDES JAUREGIALZO
Langillie

Ez dakit ba... Jentie kanpora jueten da bakaziñotan, eta horrek ez dutze jaixei askorik lagunketan. Neuk pentsetan dot egoten diela gauzak ondo pasetako, baiñe kanpora jueten gare.

Neuk uste dot oin dala urte batzuk egin euela nabarmen behera, eta ordutik hona mantendu egin dala. Kooperatibiek jai emuten dau, eta jentiek kanpora juteko aprobetxetan dau.

Neuk ez dot uste onera egin dauenik. Jaixetan anbiante haundixae euki biherko geuke; herriek politika kontuengatik banatute egon biherrien batute egon biherko leuke.

Txarrera. Neuk uste dot geruau eta gauza gutxiu egoten dala; eta jaiegunek izeten dienez, jentiek kanpora juteie elegiduten dau. Hori dana igerri egitten da herriko jaixetan.

Neuk pentsetan dot jaixek iguel dauzela. Esango neuke girue apur bat aldrebestute dauela, gaztie eta Udalekuek ez dielako konponketan, eta hori danori igerri egitten da.

Jaixen gaiñien gauza haundirik ezin dot esan, San Juanetan kanpora jueten gareta. Pena apur bat emuten dau, baiñe gurau dogu horreik egunok bakaziñotan juteko aprobetxau.

KONTUAN HARTZEKOAK

OHARRAK

II. PATXI MATXIN JAIA

Bihar, zapatua, skate-zaleen Arraska taldeak II. Patxi Matxin Jaia egingo du. 11:00etatik 00:00ak arte, hainbat ekitaldi egingo dituzte Zaldibarko pilotalekuan: egun osoan, herrikoen eta kanpotarren skate erakustaldia; arratsaldean, grafiti erakustaldia; Thee The's eta The Ruders taldeen eta Unai Azkarate bakarlariaren kontzertuak; eta disko jartzaileak, hain zuzen ere.

VIII. MUS TXAPELKETA

Domekan, hilaren 20an, mus txapelketa egingo dute Mondragon Hotelean. Gizonezkoek eta emakumezkoek esku hartu ahal izango dute, eta, hain zuzen ere, lehenengo hamasei bikoteek izango dituzte sariak. Domekan bertan eman behar da izena, 16:30ean.

'BIBLIOPORRAK'

Arrasateko liburutegiak, inguruko beste liburutegi batzuekin batera, liburu gomendagarrien zerrenda atera du. Zero urtetik aurrera adinaren arabera banatu dituzte liburuak. Eta euskarazko zein gaztelaniazko liburuak gomendatzen dituzte. Jakina, hori guztiori oporrei begira atera dute.

AED-RENAGENDA

DRAGOI JANA

San Juan egunean, egunean, Dragoi Jana egingo dute Herriko Plazan. Dragoi txuleta goxo-goxoak dastatzeaz gainera, zenbait ikuskizun ere egongo dira. Hortaz, eskuratu txartelak ahal den lasterren AEDn, AEKn edo Monte eta Iturriotz tabernetan. Prezioa: 12 euro.

BERTSO JAIALDIA

Bihar, zapatua, bertso jaialdia egingo dute Monterronen, 22:00etan, AEDk antolatuta. Jokin Labayen, Manex Agirre, Iratxe Ibarra, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Mañukorta ibiliko dira bertsoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 18
CORCUERA, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

ZAPATUA, 19
AMEZUA, Santa Marina 32 943 79 09 74

DOMEKA, 20
IRIZAR, Erguin 11 943 79 12 39

ASTELEHENA, 21
ESPAÑOL, Araba etorb. 14 943 79 18 65


MARTITZENA, 22
RUIZ, Maala 31 943 79 14 09

EGUAZTENA, 23
ZABALA, Zarugalde 42 943 77 16 30

EGUENA, 24
AZKOAGA, Ferrerías 1 943 79 15 15

EGUBAKOITZA, 25
AZKOAGA, Iturriotz 17 943 79 79 99

ALKATEAREN AGURRA/ Inazio Lakunza



Kaixo, mondrauetarrok, urte bat pasatu da zuekin lehen harremana izan nuenetik, eta denbora horretan hainbat gai jorratu behar izan dugu, eta saiatu naiz, beste idatzi batzuen bidez, udalaren jardunaren berri ematen denoi.

Zorionez berriro ditugu hemen San Juan jaiak, eta horregatik gonbidatu nahi zaituztet guztiok, ondo pasatu dezazuen, baina, gainera, parte hartu eta lagundu dezazuen Udal honekin batera. Helburua da hemen geratzen garenok, espero dut gehienak izatea, ondo-ondo pasatzea jaietan.

Ezin dugu ahaztu, eta are gutxiago San Juanetan, gutako batzuk ezinbestean etxetik urrun daudela.

Gure udalbatzaren gogoia da, eta nirea ere bai, San Juanak suak ke bihurtzea gure kontu guztiak, jaietan bete-betean sartzeko.

Inazio Lakunza. Arrasateko alkatea

ETABARRUAN...

SAN JUAN JAIK 2004

Alkatearen agurra	/3
SUDCen urtemuga	/4-5
Egitaraua	/6-7
Dantzak	/9
Eguzki Laru	/10
Ikuskizunak	/13
Gorka Zubizarreta	/15
Arkulariak	/16
Xakea	/18
Skate jaiak	/19
Kaleko giroa	/21
Musika	/22-27
Jokin Labayen	/28
Danborrada	/30
Txosna-egitaraua	/31
Taberna-egitaraua	/33
Dragoi Jana	/34
Dantza ikuskizuna	/36
Irudi zaharrak	/38
Zaharrak berri	/39
Gaitariak	/40
Irratia	/42
Telebista	/43
Txirritola	/44-45

Arrasate



SANJUANAK04

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Amaia Mundiñano
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Bereziabar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru-Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

KULTURA

Berrogei urteren ostean, oraindik lanean segitzeko gertu

Aurten 40 urte bete dira SUDC elkarte sortu zela; oraindik bizirik dirau txoko gastronomikoen elkarteak

UBANE MADERA

SUDCen presentzia nabaria izaten da San Juan jaietan, elkarte horrek antolatzen ditu-eta ekitaldi asko. Baina aurten nabaria-goa izango da SUDC elkartearen presentzia, omenaldia egingo diote-eta.

Izan ere, aurten 40 urte beteko dira SUDC elkarte sortu zenetik, eta oraindik elkarteak bizirik irauteaz gain, urtean zehar eta bereziki San Juan jaietan egiten diren ekitaldietako asko antolatzen segitzen dute SUDC elkarteko lagunek.

Elkarte historiko horretako Andoni Urtzelai presidentearekin, Jesus Mari Egidazu presidentearekin eta Jesus Mari Artze batzordekidearekin izan gara berbetan.

OSPAKIZUN EKITALDIK

SUDCeko kideek jakinarazi digute San Juanetarako ez dutela gauza handirik prestatu euren urteurrena



SUDC elkartekoak beti akordatu izan dira pertsona nagusiekin; hona hemen 1982ko omenaldiko argazkia.

ospatzeko: "Berezia dugun ekitaldi bakarra fanfarren alardea da. Sei fanfarre datoz, 100 lagun baino gehiago. Eguerdian hasi eta 19:00ak arte ibiliko dira". Edozelan ere, aurrera begi-

"Gure asmoa da urria ingururako kontzerturen bat-edo prestatzea, Goikobaluren laguntzarekin, posible bada"

ra ospakizunen bat egitea pentsatu dute: "Gure asmoa da urri ingururako kontzerturen bat-edo prestatzea, Goikobalurekin, posible bada. Eta gero, nahi duguna da hurrengo urte-

rako *playback* jaialdia errekuperatu". Horrekin lotuta, esan digute deia egingo dutela jakiteko zenbat jende egongo litzatekeen parte hartzeko gertu.


Edozelan ere, nahiz eta eurek ospakizun handirik ez prestatu, Udalekoak akordatu dira eurekin eta 40 urte hauetan guztietan egindako lanarekin. Hala, jaien azkeneko egunean, hilaren 27an (domeka), Aitortzeko Ekitaldia egingo dute osoko bilkuren artoan. Besteak beste, SUDC elkartearen 40. urteurren hori gogora ekarriko du Ignacio Lakunza alkateak eta oroitzapenerako opariren bat ere emango diete.

SUDC ELKARTEAREN EGOERA

SUDCeko elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak sei lagun dira, gaur egun: Andoni Altzelai presidentea, Jesus Mari Egidazu presidenteardea, Roberto Beltran da idazkaria eta diruzaina eta Jesus Mari Artze, Rafa de la Cruz eta Antton Zumalde dira batzordekideak. Baina SUDC elkarte bera herri-

egizabal

o i n e t a k o a k



GEOX

PEDRO MIRALLES

Ferreries

NATURE

PIKOLINOS

CAMPER

VELETTO

STONEFLY
ABSOLUTE COMFORT



ARRASATE, Olarte 14 Tel: 943796601

BERGARA, Bidekurutzeta 13 Tel: 943761228

“Nekatu ez gara egin, oso lan polita da herriaren alde lan egitea”

“Jendeak geroz eta gutxiago parte hartzen du jaietan, pasiboagoa da”

ko elkarte gastronomiko guztiek osatzen dute.

ERRELEBUA LORTU GURAN

Hori bai, azken 40 urteotan hortxe aurrean lanean ibili direnen taldea apenas aldatu da urte horietan guztietan. Eta nekatuta ez daudela esan diguten arren, laguntza edo errelebu ez litzatekeela gaizki etorriko gaineratu digute: “Nekatu ez gara egin, oso lan polita da herriaren alde lan egitea, gustura egiten dugu; baina jende berriarekin ideia berriak datoz, eta hori eskertu egingo genuke. Iaz egin genuen dei jende berria sartzeko batzordean, baina ez da mugimendurik ikusten. Aurten berriro ahaleginduko gara”. Adibidez, Jose Mari Artzek eta Roberto Beltranek 25 urte daramatzate SUDC elkartearen.

Kontuak kontu, aurrea egitea lortu du SUDCek: “Hilero egiten dugu batzar bat elkarte guztietako


ordezkari banarekin eta ekintzak-eta antolatzeko elkartzen gara. Adibidez, azkeneko aldiz, erretiratuei omenaldia egin genien. Hala, egin beharrekoa ekintza handia bada, jende gehiagok laguntzen digu”.

AZKEN URTEOTAKO ALDAKETAK
SUDC elkartearen ez da aldaketa handirik izan azken urteotan: “Nagusien danborradan beste lau konpainia sartu dira azkenaldian; lehenago, *playback* jaialdia desagertu zen, eta Haurren Eguneko bazkariarekin-eta lehen gu arduratzen ginen eta orain ez; era berean, bakailao txapelketa desagertu da, ez zuelako elkarte askok parte hartzen. Egia esan, gauza mordo egiteko aukera dago, baina jendea nekatuta egiten da...” Horrez gainera, SUDCekoek esan digute jendeak geroago eta gutxiago parte hartzen duela jaietan zuzenean: “Ikusteko ekintzak gustatzen zaizkie, pasiboagoak”.

ELKARTEAREN URTEROKO LANAK

Hala ere, badirudi oraingoz, behintzat, SUDCen etorkizuna ez dagoela zalantzan: “Herriko elkarte gastronomikoen arteko harremana beti izan da ona. Elkarte bakoitzetik ordezkari bat dago SUDCen, eta ia gehienak etortzen dira egiten ditugun batzarretara”.

Gauzak horrela, gure orrietatik SUDC zoriontzea besterik ez zaigu geratzen, eta ea etorkizunerako, besterik ez bada ere, euren lanarekin segitzeko laguntzailerik aurkitzen duten.



SUDC-EN ARTXIBOAN

1967an SUDC elkarteak hartu zuen danborrada antolatzeko ardura; irudiotan duzue orain dela urte batzuk ateratako argazkia.

SUDC elkartearen historia sorreratik gaur egunera arte

1963: SUDC sortu zen. Jose Egidazu Casino zen lehendakaria. Hiru ekintza egiten hasi ziren: omenaldia erretiratuei; Seat 600 autoaren zozketa eta danborrada.

1971: Aiesak hartu zuen lehendakaria.

1973: Luis Martinez lehendakari.

1977: Jose Antonio Armendia lehendakari.

1982: Urte garrantzitsua izan zen. Ordura arteko taldea goitik behera berritu eta Jesus Mari Artze guztien gidari zela, 20 ekintza berri baino gehiago egiten hasi ziren. Orduan sortu ziren: umeendako tortilla lehiaketa; buztinezko irudi lehiaketa; ezinduen eguna; San Juanetako entzierroa;

aratustek; fanfarreen ikuskizuna eta danborradak bikoiztu egin zuen jende kopurua. Hori bai, hainbat urteren buruan ekintza batzuk desagertu egin ziren, parte-hartze txikiarengatik.

1987: Gorroño lehendakari.

1989: Anton Zumalde lehendakari. Urte hartan: Goikobalu; Trikitixa Eskola eta *playback* jaialdia.

**1990: Jose Ramon Arkauz lehendakari. Mota askotako ekintzetan parte hartzen hasi zen SUDC: Hiesaren aurka, Ijitoen Egunean, AED elkartearekin, Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan...
2004: Andoni Alzelai lehendakari 99az geroztik. Aldaketa handi bari.**

San Juan jai zoriontsuak opa dizkizuegu



Merkataritza non, bizitza han

EGITARAUA

JAI ETAKO EGITARAUA

Egubakoitza, 18

18:30 Seber Altuben GIMNASIA
ERRITMIKOAREN ERAKUSTALDIA.

Zapatua, 19

Egunean zehar Zaldibarren Arraska Taldearen
Patxi Matxin II. SKATE JAIA.

11:00 Skate-gunea zabalik.

15:00 Grafiti erakustaldia.

18:00 Kontzertu: Thee The's eta The Ruders
taldeak.

19:00 HAUR DANBORRADA Arrasate
Musikaleko Musika Bandarekin. Ibilbidea:
Nafarroa etorbidea, Garibai etorbidea, Maala,
Erdiko kalea eta Herriko Plaza. SUDCEK
antolatuta.

22:00 Monterronen BERTSO SAIOA.

Bertsolariak: Jokin Labaien, Manex Agirre,
Iratxe Ibarra, Joan Maia, Unai Iturriaga eta
Mañukorta. AEDK antolatuta.

Domeka, 20

10:30 Nafarroa etorbidean elkartuko dira haur
dantzarien taldeak.

11:45 Kalez kale dantzarien saioak.

16:30 Mondragon Hotelean, MUS txapelketa.

17:00 Herriko Plazan dantza taldeen jarduna.
Ondoren DANTZALDIA. Lore Gazteak eta
Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeek antolatuta.

Eguaztena, 23

15:30 Arrasateko TXISTULARIEKIN DIANA.

16:00 Herriko Plazan ETXAFUEGOAK eta
BONBA JAPONIARRAK.

17:00 Herriko Plazan Duo en la Lona taldeak
Circo Discolo: Munduko zirkorik txikiena
IKUSKIZUNA egingo du.

19:00 Seber Altuben ADIERAZPEN
SENSUALEN ERAKUSKETA Sexologia
Zerbitzuak antolatuta.

19:30 San Juan parrokiari, SALVE SOLEMNEA.

21:30 Maala kaletik Herriko Plazaraino
ERREMENTARI DANTZA.

22:30 SAN JUAN SUA Herriko Plazan.

22:30 Nafarroa etorbideatik irten eta herriko
kaleetan, NAGUSIEN DANBORRADA.



ATZO, EGUENA, HASI ZIREN EKITALDIAK

Ibilbidea: Nafarroa etorbidea, Laubide plaza,
Garibai etorbidea, Maala, Erdiko kalea eta
Herriko Plaza. SUDC elkarteak antolatuta.

Jarraian Herriko Plazan, Gaubela taldearekin
DANTZALDIA.

Eguena, 24

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN.

09:00 ENTZIERROA: Ferrerías kaletik irtengo
da eta Erdiko kaletik eta Iturbide ondok
pasatu ostean, Laubide plazan egongo den
zezen-plazan bukatuko da. Gero, bigantxak
izango dira zezen-plazan.

11:00 San Juan Bataiatzailearen parrokiari
MEZA NAGUSIA.

11:00 ARRASATEKO ERRALDOI eta KILIKIEN
KONPARTSAREN irteera.

11:30 Arrasate Musikaleko MUSIKA
BANDAREKIN KALEJIRA.

12:00 Herriko Plazan Ohorezko Aurrekua eta
San Juan Zortzikoa dantzatuko dituzte.

12:30 Abaroan 80 URTEK GORAKO



izarra

• KOPISTEGIA •

**San Juan jai
zoriontsuak
guztiontzat!**

- Fotokopiak
- Inpresio digitala
- Inprimategi lanak
- Plastifikazioak
- Koadernaketak
- Fax zerbitzuak
- E-mail bidez inprimaketak
- Bulego materiala
- Ezkontza gonbitak
- Txartelak
- Kautxuzko zigiluak

EGITARAUUA



TXARANGAK, KALE-ANTZERKIA, FANFARREAK... IZANGO DIRA KALEKO GIROA BEROTZEN

NAGUSIEI OMENALDIA egingo diete.
13:00 Monterronen KONTZERTUA Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREN eskutik, Arrasateko gaitariak eta erraldoiek zenbait kantutan parte hartuko dute. Juan Artzamendiren omenezko kontzertua izango da.

Egitaraua:

<i>Gure Zaindaria</i>	M. Gonzalez
<i>Aitziber eta Jon</i>	T. Muxika
<i>Vals con variaciones</i>	J. Romano
<i>Jota</i>	M. Turrillas

Los Siete Magnificos
Star Wars
See You later alligator
Gora Arrasate
San Juan Ereserkia

E. Bernstein
J. Williams
R. Guidry
Juan Artzamendi
J. Artzamendik moldatua

18:30 HAUR ANTZERKIA Gorringo taldearekin: *Munduko arrautzarik handiena.*
19:00 Kalejira ARRASATEKO GAITARIEKIN.
19:30 Haurrendako jaialdia zezen-plazan, zezentxoekin eta *poney*-ekin, Incansables txarangak girotuta.
21:00 Herriko Plazan DRAGOI JANA. Han erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera. Txartelak salgai: AEDn, AEKn eta Monte eta Iturriotz tabernetan. Prezioa: 12 euro. Antolatzaileak: AED, AEK eta EHE.
23:00 Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak. Pirotecnia Astondoa.
23:30 DANTZALDIA Triki Ta Ke taldearekin.
23:30 Aukeran dantza taldeak *Izena duen guztia omen da* IKUSKIZUNA egingo du.

Egubakoitza, 25

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN
09:00 ENTZIERROA: Ferrerías-Erdiko kalea-Iturbide-Laubide plaza. Gero, bigantxak, zezen-plazan.
10:00 Umeak esnatzeko DIANA izango da.
11:45-12:00 Seber Altubetik pasatzen diren umeei borlak, marakak eta banderatoak banatuko zaizkie Eguzki Laruri ongietorria egiteko.
12:00 EGUZKI LARURI ongi etorria Zaldibarren; gero jolas parkea zabalduko dute, 14:30ak arte.
12:30 Arrasateko Trikitilariekin KALEJIRA.
16:00-17:30 Zaldibarren Eguzki Laruren JOLASPARKEA irekiko dute berriro.
17:30 Zaldibarren TXOKOLATE-JANA.
18:00 Zaldibarren ZIRKU KALEJIRA Sebastopoleko Titiriteroekin.
19:00 ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.


19:15 Zaldibarren EGUZKI LARURI AGURRA.
20:00 Herriko kaleetan KALE ANTZERKIA Oihulari Clown taldearekin: *Otiacích.*
22:30 Herriko Plazan EUSKADI GAZTEAREN DISKO FESTA.
23:00 Monterronen Albadulake konpainiaren *Malaje* IKUSKIZUNA.

Zapatua, 26

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN.
09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidea. Gero, bigantxak.
12:00 FANFARREN KALEJIRA.
16:00 San Andres Xake Taldearen LAUKO XAKE TORNEOA.
17:30 Fanfarreekin KALEJIRA.
18:00 Zaldibarren, ARKU TIROKETA LEHIAKETA. Arku tiroketa praktikatzeko aukera ere izango da.
19:30 Herriko Plazan SOKA DANTZA.
20:00 Herriko Plazan TRIO CHAMUYOren emanaldia. Tangoak eta milongak, dantzariekin.
22:30 Monterronen RUPER ORDORIKAREN kontzertua.

Domeka, 27

BARRAKAK prezio berezian. Bidaia 0,80 euro.
11:30 ERRALDOIEN BILKURAREN hasiera: Zaldibar, Biteri, Garibai, Zerkaosteta, Olarte, Ferrerías, Iturriotz, Erdiko kalea, Herriko Plaza. Gero KALEJIRA gaitariekin. Konpartsak: Arrasate, Basurto, Iruñea (alde zaharra) eta Sanduzelai (San Jorge). Gaitariak: Arrasate, Gasteiz, Burlata, Eltziego, Bilbo, Tuteria, Iruñea, Elgoibar, San Jorge eta Txantrea.
13:30 Udaletxeko osoko bilkuren aretoan Aitortzeko Ekitaldia:gaitariei 25. urteurrenean eta SUDC elkarteari 40.urteurrenean.




MARGA

jantzi denda



Ondo pasa
San Juanetan

Iturriotz 21 • ARRASATE • Tel.: 943 71 17 40
San Pedro 20 • BERGARA • Tel.: 943 76 05 37





Carrascal, S.L.


BERTAN EGINDAKOAK:



ONDO PASAU SANJUANAK!



LEGARRE PAB. 1. SOLAIRUA - Tel. eta faxa : 943 79 01 82
scarrasc_1@infonegocio.com



Zenbaki AHOLKULARITZA

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea

- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua)
ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
posta elektronikoa: zenbaki@zenbaki.es
webgunea: www.zenbaki.es

DANTZAK

Gertuko eta urruneko euskal dantzak

Ehun lagun baino gehiago etorriko dira Arrasatera Haur Dantzarien Eguna ospatzera


UBANE MADERA

Euskal Herriko dantzak egitera eta erakustera etorriko da etzi, domeka, makina bat neska-mutiko eta nagusi. Izan ere, Haur Dantzarien Eguna da.

Gasteizko, Andoaingo, Basurtoko, Iparraldeko, Lesakako, Soralezeko, Bergarako eta hemengo, Arrasateko, dantza-taldeak ibiliko dira domekan kalez kale euren dantzak erakusten. 10:00etan elkartuko dira Zaldibar pilotalekuan eta han-

dik plazara joango dira guztiak batera, hamarretakoa egitera. Bien bitartean, txistularien doinuek alaituko dituzte herriko kaleak.

Indarrak batu ostean, dantza-taldeak kalez kale ibiliko dira, dantza erakustaldia egiten. Bereziki, erdiko aldean ibiliko dira, eta ohi duten moduan, adibidez, Iturbidera ere joango dira, herriko nagusienenganaino iristeko. 13:00ak arte ibiliko dira kalean. Ordu horretan, talde guztiak plazan elkartuko dira eta Lesakatik datorren taldeak dantza berezia egingo du. Gero, kanpotik etorritako haurrak Arrasateko etxeetan bazkalduko dute. Bitartean,



Haur Dantzarien Egunerako gogor ibili dira entseguak egiten Arrasateko neska-mutikoak.

txistulari guztiek hainbat doinu joko dituzte.

Eta bazkalostean ekingo diote berriro jaiari. 17:15ean dute hitzordua plazan. Hona-

ko dantza-saioa egingo dute: Agurra, Bertzijana, Brokel Dantza, Makila Txikiagoa, Sagar Dantza, arin-arin eta fandangoa, Ipurdi Dantza

eta Larrain Dantza. Horrez gainera, herri bakoitzeko taldeen saioak tartekatuko dira. Horren harira, antolatzaileetako batek —Amalur Lopezek kontatu digu— urtero ahalegintzen direla kanpoko talde desberdinak ekartzen, beste bizitasun bat emateko, baina lan hori ez dela batera erraza, bereziki, Iparraldeko dantza-taldeekin.

Kanpotik datozen umeak etxeetan hartzeko orduan dantza-taldeetakoen familiak dira nagusi; gainerakoak gutxi inplikatzan dira

Domeka, eguaztena eta zapatua.

Kalean eta plazan

Haur dantzariak; Errementari eta Soka Dantzak

Errementari Dantza eta Soka Dantza

Euskal dantzen gainean berba egitean, ezin ahaztu San Juanetako beste bi izarrak: Errementari eta Soka Dantzak. Errementari Dantza San Juan bezperan izango da, 21:30ean. Aurten, ibilbidea aldatu egin behar izan dute, lanen ondorioz. Hala, aurten Nafarroa etorbideetik atera beharrean, Maalako Errabaletik aterako dira; handik, Seber Altuberaino joko dute. Handik aurrerako ibilbidea betikoa izango da, Herriko Plazaraino igo eta plazan bertan dantza egingo dutelako.

Soka Dantzari dagokionez, ez da aldaketarik izango. 26an izango da, 19:30ean, Herriko Plazan. 10-12 mutilek jardungo dute dantzan: Aurreksua, Alpargata dantza eta fandango eta arin-arina egingo dituzte.



Hemen
GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

943 71 48 45

607 94 89 84

www.hemen-garbiketak.com

Gora San Juanak!

UMEAK

Eguzki Laruren tamainako jaia gozatzeko

Egubakoitza Umeen Eguna izango da, eta aurten ere Zaldibar jolasleku erraldoi bihurtuko da

IKER BARANDIARAN

Urtero moduan, Txatxilipurdik Eguzki Laru eguna egingo du San Juanetako umeen egunean. Ekintza guztiak Zaldibarren egingo dituzte.

Egubakoitzean, ekainaren 25ean, egingo diote ongiatorria Eguzki Laruri. 10:00etan diana joko dute, herriko ume eta gaztetxo guztiak kalera irten daitezzen. 11:30ean, Txarangalaruk kalejira egingo du eta bidean aurkituko dituzten

gaztetxoak batuko dituzte. Seber Altubetik irten eta Zaldibarrera joko dute. Txarangalaruko musikariek jotzen dituzten instrumentuak gaztetxoak eginak dira, baina burundara handia egiten dute, edonondik entzuteko modukoa.

Behin guztiek Zaldibarren bat egin ostean, 12:00etan, Eguzki Laruri ongiatorria egingo diote, eta bere etorrerarekin batera, Zaldibarko jolasgunea zabalduko dute.

JOLASGUNE ERRALDOIA
Gaztetxoendako hainbat lantegi ipiniko dituzte Zaldibarren: globoflexia, aurpegi margotzea, artzain-



Umeak eta gaztetxoak deseaten egoten dira Eguzki Laruren eguna heltzeko.

jokoa... Horrez gain, puzgarri ugari ipiniko dituzte, eta baita kartak ere.

14:00etan jolasgunea itxi egingo dute, eta gazte-

txoek euren etxeetan bazkaltzeko aukera izango dute. Izan ere, 16:00etarako, kartak eta puzgarriak berriro abian egongo dira.

Horrez gain, arratsaldean herri kirolak egingo dituzte: sokatira, zaku lasterketa, txingak, arto bilketa... 17:30ean askaria hartuko dute, indarberitzeko, eta horren ostean Sebastopoleko Titiriteroek zirkukalejira egingo dute Zaldibarren.

19:15ean Eguzki Laruri agurra egingo diote, hurrengo urtera arte.

Aurten, Zaldibarko pilotalekuan ohiko puzgarri, kart eta lantegitxoez gain, herri kirolak egingo dituzte arratsaldean

**Egubakoitza, 25
11:00etatik
19:15era**

Zaldibarren

Puzgarriak, lantegiak, joko ugari...

Uztailerako, eguraldi ona

Txatxilipurdi elkarteak urtean ekintza ugari antolatzen ditu, baina horien artean hiru nabarmentzen dira: Gabonetako Txikilandia jolasgune erraldoia, uztaileko udalekuak eta San Juanetako Eguzki Laru eguna. Azken hori, Eguzki Larurena, uztaileko udalekuei begira egiten dute. Uztailean egiten dituzten ekintzetarako eguraldi ona behar dute, eta horretarako Eguzki Laruri gonbita egiten diote, San Juanetan Arrasatera etorri eta abuztutara arte herrira eguraldi ona ekar dezan.

Eguzki Laruri merezi duen ongiatorria egiteko, azken urteotan Zaldibarko pilotalekua umeendako lantegiz, puzgarriz eta bestelakoez bete dute. Eta, horrez gainera, umeendako eta gaztetxoendako ikuskizunak ere antolatzen dituzte.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE

Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76




ilusiorako mila eta zazpi arrasate


ETXEAN NAHI DITUGU!




JON AGIRRE



JOSU URIBETXEBARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



KEPA URRIA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT




AMAIA ARRIETA



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



ARATZ GOMEZ



TXUS GOIKOETXEA



SAIOA ALZUA ETA GAIZKA AZKARATE



IGOR LETONA



ERREFUXIATUAK

Arrasateko Alde
Zaharreko tabernak:
Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz,
Biona, Basati, Kimetz

UMEAK

Hainbat ikuskizun, familia osoak gozatzeko

Sebastopoleko Titiriteroen kalejira, munduko zirku txikiena eta 'Munduko arrautzarik handiena'

IKER BARANDIARAN

Hainbat ikuskizun antolatu dituzte datozen egunetarako. Berez ume eta gaztetxoendako diren arren, helduendako ere aproposak direla argitu digute.

handiena ikuskizuna egingo du, 18:30ean; eta ekainaren 26an, Sebastopoleko Titiriteroek *Zirku-kalejira* egingo dute, 18:30ean, Eguzki Laruri agurra egiteko.

Horrez guztiaz gain, besteak beste, Erraldoi eta Kili-kien Konpartsak herriko kaleak girotuko ditu.

ARRAUTZA HANDIENA

Gorringo antzerki taldea oso ezaguna egin da *Kutxidazu bidea*, *Ixabel antzez-lana* egin duelako, baina horrez gain umeendako beste hainbat ikuskizun egin izan ditu. Orain dela gutxi, *Munduko arrautzarik handiena* lana estreinatu dute, eta Arrasatera



ANDER GILLENEA

Aurten ere umeak eta gaztetxoak aho zabalik geldituko dira hainbat ikuskizunekin.

ekarriko dute arrautza hori. Hainbat aditu etorriko dira arrautza hori munduko handiena den edo ez egiaztatzen.

Urtero moduan, Txaxilipurdik Eguzki Laruren eguna antolatu du. Egun horretako ekitaldien barruan, Sebastopoleko

Titiriteroek *Zirku-kalejira* egingo dute.

Sebastopoleko Titiriteroak aspaldikoak dira. Hogei urtetik gorako esperientzia daukate, eta Arrasatera zirku txiki bat ekarriko dute. Zirku horrekin malabaristak, akrobatak eta magoak etorriko dira, besteak beste. Familia osoarendako ikuskizuna dela esan digute.

San Juanetan, besteak beste, bi zirku ikuskizun eta 'Munduko arrautza handiena' ikusteko aukera izango da

23an, 24an eta 26an.

Erdialdeko kaleetan

Ume eta gaztetxoendako hainbat ikuskizun egingo dituzte

Munduko zirku txikiena ekarriko dute

Ekainaren 23an, En La Lona taldeak *Circo Díscolo* ikuskizuna egingo du.

En La Lona taldea Argentinan jaio zen, baina orain dela lau urte Euskal Herrira etorri zen. Taldeak hainbat ikuskizun egin ditu, eta Arrasatera munduko zirku txikiena ekarriko du.

Honako hau munduko zirku txikiena dela diote, horren baitan animalia heziak, txotxongiloak eta *clown*-a dituztelako. Ikuskizun horretan bi lagunek bakarrik esku hartzen dute: biek ikusleei harrera egin eta laguntzeaz gain, zirkua txukundu eta artista lan guztiak egingo dituzte.

Umerezko lana da, eta En La Lona taldeko kideen esanetan, ikuskizuna familia osoa dibertitzeko modukoa da: "Ez da umeendako bakarrik, guztiendako da".

Ondo pasau San Juanetan!



Ane Lasagabaster eta Karmele Bikuña

ANE
LASAGABASTER
H O R T Z K L I N I K A



- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta implantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora 18 solairuartea D - 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 13 68

Goizez eta arratsaldez irekita



San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Zoruak • Leihoak • Ateak • Horma-armairuak



Jai zoriontsuak izan!



Garibai etorbidea z/g
Tel.: 943 79 59 00/943 79 52 23
Faxa: 943 79 41 11



ELKARRIZKETA GORKA ZUBIZARRETA SAN JUANETAKO IRUDIAREN EGILEA

“Errementari Dantza da gehien hunkitzen nauen San Juanetako ekitaldia. Artelana da”

IKER BARANDIARAN

Gorka Zubizarreta da aurtengo San Juanetako irudiaren egilea. Diseinatzaile gazteak herriko zenbait elkartetarako lanak egin ditu, eta dagoneko hainbat lehiaketa irabazi ditu. Gorkak pena du San Juanak dezente aldatu direlako.

San Juanetako irudi lehiaketara aurkezten zaren lehenengo aldia da?

Ez, azkeneko urteotan herriko hainbat lehiaketatan esku hartu dut. Hasieran erronka zen eta gaur egun ohitura bilakatu da.

Lan handia eman dizu irudi hori egiteak?

Gehienetan azkeneko momentuan ibiltzen naiz. Lehiaketaren oinarriak azkar batzen ditut, baina azkeneko egunetara arte ez naiz hasten. Azkeneko bi egunetan daukadan materiala biribiltzen hasten naiz, eta hala egiten dut. Batzuetan buruan daukadan iru-

dia berehala jakiten dut zelan egin; beste batzuetan, berriz, ez.

Aukeratzten dituzten irudiak gustuko izaten dituzu?

Subjektiboa naiz. Gehienetan politikak dira, baina urte batzuetakoak ez zaizkit batere gustatu. Hala ere, ez dakit epaimahaiak zer baloratzen duen.


Bazeneukan irabazteko esperantzarik?

Ez. Hainbat urtean aurkeztu naiz. Hasieran epaia noiz eman zain egoten nintzen, baina gaur egun ez dut hala bizi. Hala ere, asko poztu nintzen.

Zer irudikatu gura zenuen?

Errementari Dantza txalotu gura nuen. San Juanetatik gehien hunkitzen nauen ekitaldia da. Horregatik, bi dantzari suaren inguruan eskuetatik helduta agertzen dira. Horrez gain, hizki gotikoak egin ditut Erdi Aroko kutsua ematearren.

Zeintzuk dira San Juanetako irudiak izan behar dituen funtsezko elementuak?



Gorka Zubizarreta fin dabil diseinatzaile lanak egiten.

“Gaur egun, San Juanak diruarekin soilik antolatutako jai bilakatu dira, eta hori herriari arrotza egiten zaio”

“Sua eta dragoia ezinbestekoak dira San Juanetako irudia egiterakoan. Hortik aurrera, irudimena garatu behar”

Lehenik eta behin, sua, San Juanak hortik datoze-lako. Horren ostean, dragoia. Hortik aurrera, bakoitzak gura duena. Nik gehiago jotzen dut gauza sinpleetara. Jai bakoitzak daukan izaera islatzen saiatzen naiz.


Gero eta diseinu lan gehiago egiten dituzu...

Bai. Enpresa baten katalogoak diseinatzen nabil. Eta beste hainbat lan egin ditut: Gazte Kontseiluko logotipoa, gaztetxeko lan mordoa, Arrostaitz dantza taldearen logotipoa... Pozgarria da gertuko taldeek nire irudiak erabiltzea.

Gustuko dituzu San Juanak?

Gurago ditut Maritxu Kajoi eta Santamasak. Orain dela urte batzuk, San Juanetan herria zen jaiaren motor eta dinamizatzailea, eta Udala laguntzailea. Gaur egun, berriz, gauzak asko aldatu dira. Horren adibide garbiena iazko Santamasetan bizi izan genuen, Udalak jai herrikoien aldeko apusturik egin ez zuelako. Benetako motor herriak eta ilusioak izan behar dute. Diruarekin soilik antolatutako jai bilakatu dira San Juanak, eta hori herriari arrotza egiten zaio.

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Jose Ramon Otamendi

harategia

Harategia: Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28



MAE

Bidaiak

Ondo pasatu jaiak!


Maalako errebala 23
ARRASATE
Tel.: 943 71 24 16

N & N sol

Solarium eta Estetika Zentroa

AEB Elkarteko kide
(Espainiako Brontzeztatze Elkarte)

Ferrerias kalea 28 behea ARRASATE Tel.: 943 79 64 57



Azala berritzeko punta-puntako tratamendua:

Zimurrak, mantxak eta hiperkeratosia.
Aknea, markak eta poro dilatatuak.
Ildoak (estriak).
Biguntasunak.
Eguzkitan jarri ahal izateko prestakuntza eta brontzeaketaren aktibazioa.



Zerbitzu osagarriak:

Mota guztietako tratamendu estetikoak
Depilazioa
Manikura, pedikura
Gel-azazkalak
Permanenteak eta betileen tindatzeak

Ordutegia:

Astelehenetik egubakoitzera,
10:00etatik 20:30era
Zapatuetan, 10:00etatik 14:30era

Solariumerako bonuak:

Saio bat 7 €
10 saioko bonua 44 €
20 saioko bonua 74,5 €
30 saioko bonua 92,5 €

*Paraje eder
baten kokatua*



*Atsedenerako
behar den
guztiarekin*



*Enpresa
bilerak
egiteko leku
egokia*



Arteaga

Landetxea

*Dasta ezazu
gure menurik
goxoenak*

Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

KIROLA

Euskal Herriko xake talde onenak izango dira San Juan jaietan

Donostiako Gros eta Nafarroako Hoberena taldeen kontra neurtuko ditu indarrak Arrasate Xake Taldeak

XABIER URZELAI

Zapatuan Hirunako Xake Bizkorreko Txapelketa jokatuko dute Arrasate, Gros eta Hoberena taldeek. Oraindik baieztatu barik badago ere, seguruenik, txapelketa Altamirako lokalean izango da.

Zapatuan ekitaldi mordoa izango dira, eta Arrasateko xakelariak hirunako txapelketa kalean egin gura badute ere, Josu Tornayk azaldu du ez dakitela horretarako aukerarik izango duten: "Udalari eskatu diogu xake txapelketa kalean egiteko, baina egun horretan ekitaldi asko izango dira kalean eta ez dakit mahaiak eta aulkiak libre egongo ote diren. Kalean egiterik ez badugu, gure lokalean izango da txapelketa, Altamiran".

Txapelketaren gainean, Tornayk azaldu du Euskal Herriko talde onenak gonbidatu dituztela: "Hoberenak Nafarroako talde one-



Arrasateko Xake Taldeak eskaera egin du xake txapelketa kalean jokatzeko; baina uste dute hori ez dela posible izango.

na da, eta esango nuke Gros Euskal Herriko talde onena dela. Badakigu talde horiek ez dituztela xakelari onenak ekarriko, horiek profesionalak dira-eta. Beste batzuk etorrita ere, nor-


"Normalena izango litzateke Arrasate azkena geratzea. Baina kontuz ibiltzea daukate, xake bizkorrean onak gara-eta"

malena izango litzateke Arrasate azkena geratzea, baina ez dizkiegu gauzak erraztuko. Xake txapelketa normala izango balitz erraz irabaziko lukete, baina xake bizkorrean Arra-

satekoak onak gara, eta lanak emango dizkiegu".

Txapelketaren nondik norakoen gainean ere egin du berba Josu Tornayk: "Hiru talde izango gara, eta talde bakoitza zortzi xakelarik osatuko dute. Guztira 24 xakelari izango gara, eta bakoitzak gainontzeko taldeetako xakelari guztien kontra jokatu du. Xake bizkorreko txapelketa denez, partidek 10 minutu iraungo dute; bost minutu jokelari bakoitzarendako, hain zuzen ere. Horrenbestez, xakean ondo jokatzen jakiteaz gain, ezinbestekoa da azkarra izatea". Arrasateko ordezkariak San Andres Xake Taldeko lehenengo eta bigarren taldeko jokelariak izango dira: "Baliteke, baina, gazte mailako jokalariren bat edo beste ere egotea".

Hirunako Xake Bizkorreko Txapelketak hiru ordu eta erdi inguru iraungo du. Argi dago xake txapelketa kalean egiten badute askoz ere erakargarriagoa izango dela, jarraitzaile gehiago hurbilduko dira eta txapelketa jarraitzera.



CANAS - ESTEBAN S.L. ERAIKUNTZAK

San Juan jai zoriontsuak
arrasatear guztioi!

KIROLAK

19

zapatua



ARRASKA SKATE TALDEA

Patxi Matxin jaiak skatezale asko batu-ko ditu bihar Zaldibarren. Aurtengoa Arraska Skate Taldeak San Juanetan egiten duen bigarren jai izango da; Gabonetan Musakolan antolatu zuten skate ikastaroak izan zuten arrakastak animatu zituen-eta aurten ere Patxi Matxin jai egitera. Eta, joan den urtean moduan, skateak, grafitiak eta musika ona izango dira, besteak beste, Zaldibarren.

BI GUNE JARRIKO DITUZTE

Patxi Matxin jaiak skate taularen gainean ibiltzeko bi gune jarriko dituzte. Batek, *Street* gunea izango da. Eta, bestetik *Miniramp* gunea. Gune bakoitzean tamaina askotariko arrapalak egongo dira, gura beste truku egiteko prestatuta. Arrapala horietako batzuk Arraska taldearenak dira, eta beste batzuk Bilbotik ekarriko dituzte. Zaldibarren euren trebezia erakusten nortzuk egongo diren galdetuta, Sergio Arroyo Arraska taldeko

Goizeko 11:00etatik gauera arte skateak, grafitiak, eta kontzertuak izango dira Zaldibarren.

kideak uste du Euskal Herri osoko skatezaleak etorriko direla. Azken asteotan antolatzaileak gora eta behera ibili dira Patxi Matxin jaiaren

berri ematen, eta jakin badakite kanpoko lagunak etorriko direla. Horrez gain, dagoeneko bigarren aldia da jai hori antolatzen dute-

na, eta joan den urtekoak izan zuen harrera ona ikusita, aurtengoa ez da makalagoa izango. Jaiak 11:00etan hasiko da, eta eguerdira arte

skateko bi guneotan ibiltzeko aukera izango da. Horrez gain, Miguel arduratuko da diskoak jarri eta goizeko lehenengo orduak

musika onarekin girotzen. Punk eta hardcore kantuak ipiniko ditu.

GRAFITIAK ETA KONTZERTUAK

Bazkaldu eta gero, 15:00etatik aurrera Arrasateko eta kanpoko hainbat grafitilari kolorea emango diote Patxi Matxin jaiari. Hala, grafitiak nola egiten dituzten ikusteko aukera izango da, eta margolari trebeak izango dira, gainera.

Arratsaldeak aurrera egiten duen neurrian musika gero eta protagonismo handiagoa hartuko du, 18:00etatik 21:00etara arte kontzertuak izango dira-eta. Lehenengo, Thee The's talde mondragoetarraren emanaldia izango da. Surf-garage musika egiten zuten taldeen bertsioak joko ditu; besteak beste, The Sonics eta Question Mark and the Misterians taldeenak. Gero, punk oi! musika egiten duten The Ruders aretxabalarren txanda izango da, eta azkenik, Bergara aldeko Unai Azkaratek, Flyshit taldeko gitarra jotzaileak, bakarkako emanaldia egingo du.



Eta, horrelako egun bati behar den moduko amaiera emateko musika gehiago aukeratu dute antolatzaileek. 21:00etatik aurrera DJ Haitz arrasatearrak Zaldibarreraino hurbiltzen diren guztiak lasaitzeko moduko musika jarriko du. Aurtengo Patxi Matxinek osagai guztiak ditu jai arrakastatsua izateko.



HIKA
OSAGARRIAK



Juan Carlos Gerra 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 98 06




ARREGI


arte galeria
enmarkazio tailerra

Maalako Errebala, 8
20500 ARRASATE
Telf: 943 79 56 44
arregi.arte@lycos.com

ONDO PASAU
SANJUANAK!!



Josle
Mertzeria eta lentzeria



- Arropa eta puntuzko konponketak
- Gortinak eta estoreak egiten dira
- Bordatuak

San Juan jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Otalora Lizentziaduna 21 - ARRASATE
Tel.: 669 100 314

KALEKO GIROA

Jaietan, kaleko giroak ez du behera egingo

Konpartsak, gaitariak eta txistulariak arduratuko dira, besteak beste, kale giroa alaitzeaz

XABIER URZELAI

San Juan jaietan arrazoi asko izango dira kalez kale ibiltzeko, herriko eta kanpoko talde asko ibiliko dira-eta lanean kaleko giroa berotzeko.

San Juan jai arrakastatsuak izateko egurraldiak berebiziko garrantzia izango du. Are gehiago, kalean egiteko ekitaldi mordoan antolatuta dituztela kontuan hartuta; izan ere, kalean igaritzen da herri bat jaietan murgilduta dagoen edo ez.

TALDE ASKOREN LANA

San Juanetan talde askok izango dute herriko jaiak girotzeko ardura. Lehenengo kalejirak dantzari taldekoek egingo dituzte, domeka eguerdian. Arratsaldean ere ez dute atsedetik hartuko, Txikitxu Arrostitz eta Lore Gazteak taldeek dantza talde guztien jarduna eta agurra antolatu dute-eta.

Eguaztenean, San Juan bezperan, txistulariek izango dute bazkalosteko logura alde batera utzi eta kaleak girotzen hasteko ardura. 19:30ak aldera Salve Solemnea izango da San Juan parrokian, eta gauerdian Gaubela taldearekin



ARRASATE PRESS

Kaleko giroa alaitzeko, dantzari, trikitilari, txistulari, gaitari eta konpartsen lana beharrezkoa izango da.

goizaldera arte dantzatzeko aukera izango da.

Eguenean herriko gaitariak ibiliko dira herritarak ohetik atera guran. 08:30ean joko dute diana, eta gura beste dantzaldi, kalejira, konpartsen desfile eta ikuskizun izango dira.

Egubakoitza ere ez da makala izango. Gaitariak ez dute kale egingo goizean goizeko lehen hitzorduan, baina 10:30ean beste diana bat izango da. Hori, baina, herriko gaztetxoendako. Egubakoitzean ere hainbat talderen kalejirak izango dira; gau partean, berriz, Joseina Etxeberriak zuzendutako Disko Festak Erdiko Plaza goraino beteko du, dudu barik. Zapatuan fanfarreak izango dira protagonista, eguerdian eta arratsaldean egingo dute-eta kalejira.

San Juanetan kaleko giroa berotzen izango direnak

DOMEKA, 20

11:45 Dantzari taldeen kalejirak eta dantzak.
17:00 Erdiko Plazan dantza taldeen agurra.

EGUAZTENA, 23

15:00 Diana Arrasateko txistulariekin.
19:30 San Juan parrokian Salve Solemnea.
00:00 Gaubela taldearekin dantzaldia.

EGUENA, 24

08:30 Diana Arrasateko gaitariekin.
11:00 Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren irteera.
11:30 Musika Bandarekin kalejira.
19:00 Arrasateko gaitariekin kalejira.
19:30 Haurrendako jaialdia zezentxoekin eta poney-ekin incansables txarangak girotuta.

23:00 Su artifizial ikusgarriak.

23:30 Triki Ta Ke taldearekin dantzaldia.

23:30 Aukeran Dantza Konpainiaren ikuskizuna.

EGUBAKOITZA, 25

08:30 Diana Arrasateko gaitariekin.
10:00 Haur eta gaztetxoak iratzartzeko diana.
12:30 Kalejira Arrasateko trikitilariarekin.
18:00 Zirku kalejira Sebastopoleko titiriteroekin.
19:00 Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren irteera.
22:30 Euskadi Gazteko Disko Festa.

ZAPATUA, 26

08:30 Diana Arrasateko gaitariekin.
12:00 Fanfarreen kalejira.
19:30 Erdiko Plazan Soka Dantza.

J. Markiegi.

Gizonezkoen moda

Olarte 2
Tel.: 943 79 15 32

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU



MUSIKA

Flamenkoa eta zirkua bat eginik ikusteko aukera

Denetarik izango da: malabaristak, akrobatikak, dantzariak eta musikariak

IKER BARANDIARAN

Datorren egubakoitzean, hilaren 25ean, oso ikuskizun berezia egingo dute Monterronen. Albadulake taldeak flamenkoa eta zirkua uztartuko ditu, besteak beste.

Aurtengo San Juanean, zirku itxurako inoiz baino ikuskizun gehiago egongo dira herrian. Umeei eta familiei zuzendutako eguneko emankizunetan badira pare bat. Horrez gain, ekainaren 25ean Albadulake talde extremadurar-andaluziarrak

Malaje lana egingo du. Lan horretan, zirkua, musika eta dantza uztartzen dituzte eta, hain zuzen ere, sei lagunek egiten dute lan: Juan Antonio Moreno malabaristak, Angeles Brea dantzariak, Roxi Katcheroff akrobatikak, Carlos Torres gitarra jotzaileak eta Pablo Moreno perkusionistak.

Albadulake taldeko lagunek egiten dutena zirku flamenko edo gaur egun gotzat dute. Talde extremadurar-andaluziarhorrek XX. mende hasieran Europan barrena lan egiten zuten komiko buhameei omenaldia egin gura die, eta haien moduan, ikusleen arretra eta irudimena piztu.



ALBADULAKE

Talde horren emankizun bitxiak lagun bat baino gehiago txundituta utziko du.

FLAMENKOA OINARRI

Talde ikusgarri horrek eskaintzen duen emankizunaren oinarria flamen-

koa da. Hain zuzen ere, malabarismoa edo beste trebetasun batzuk egiteko orduan, artistek flamenko-

ko pausoak jarraitu behar dituzte. Zer esanik ez ikuskizunean zuzeneko musika egingo dutela, gitarra espainolarekin, tinbalekin, bateriarekin eta bes-telakoekin.

Malaje lanak ordu bete inguru iraungo du. Orain dela gutxi, Gijongo Feten jaialdian mestizajearen saria eskuratu dute.

Albadulake taldearen emankizunen oinarria flamenkoa da, baina emaitza askoz zabalagoa da

**Eguena, 24
13:00**

Monterronen, Musika Eskolako Banda

**Egubakoitza, 25
23:00**

Malaje, Monterronen

Musika Eskolako Banda

Ekainaren 24an, San Juan egunean, urtero

moduan, Arrasateko Musika Eskolako Bandak kalejira eta kontzertua egingo ditu. Kalejira 11:30ean izango da. Horren ostean, 13:00etan kontzertua egingo du Monterronen.

Aurtengo kontzertua Juan Artzamendiren omenez egingo dute. Horregatik, kontzertuan minutu bateko isilunea izango da.


Besteak beste, honako piezak joko ditu Bandak: Gonzalez Bastidaren *Gure*

zaindariak, T. Muxikaren *Aitziber eta Jon*, J. Romanoren *Vals con variaciones*, M. Turrihasen *Jota*, E. Bernsteinen *Los 7 magnificos*, J. Williamsen *Star Wars*, R. Guidryren *See you later alligator*, Juanito Artzamendiren *Gora Arrasate* eta San Juan.

LUA

GOZOKI DENDA

Erdiko kalea 8 - 943 79 66 75



UNZUETA

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrillan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95

Takoi

- Zapata konponketak
- Giltzen kopiak
- Urrutirako aginte tresnen kopiak

Kalealdea 2 -behea (Larreako etxeak)

Tel.: 943 79 84 95

ELKARRIZKETA KURAIIA MUSIKA TALDEA

“Gure zuzenekoak rock-and-roll zale batzuen aurreiritziak apurtuko ditu”

IKER BARANDIARAN

Kuraia Arrasaten izan zen arren, arrasatearrak gogo handiz zeuden zuzenekoak berriro ikusteko. Joseba Ponce gitarra jotzaileari elkarrizketa egin diogu.

Elkarrekin 3 urte darazue eta bi disko kale-ratu dituzue... Zein balantze egiten duzue?

Uda honen amaieran 3 urte beteko ditugu, nahiz eta Fernando eta biok lehenetik hasiak ginen gaur egun Kuraia moduan ezagutzen den proiektuarekin.

Ez genuen pentsatuta hain luze iraungo genuenik, momentuaren arabera gorputzak eskatu diguna egin dugu. Hasiara batean diskoa grabatu eta aurkezpen kontzertu batzuk egin gura genituen, baina ia 60 kontzertu egin genituen eta orain bigarren diskoa aurkezten gabilta. Balantzea oso positiboa da, leku berriak ezagutu ditugu, lagun berriak egin eta orokorrean oso harrera ona izan dugu; hori estimatzen da.

Kuraia Arrasaten birritan izan da —gaztetxean eta Askatasun Tauladan— eta askotan deitu dizuete hemen jotzeko. Zein oroitzapen dituzue Arrasaten egindako kontzertuez?

Ni gaztetxean egindako kontzertuarekin geratuko nintzateke, jendearen gertutasuna eta berotasuna handiagoa izan zelako. Azken baten, gure gune naturala areto txiki eta

itxiak dira; plaza eta jaialdi erraldoietan galduago sentitzen gara. Arrasate jotzera gustura joaten zaren leku horietako bat da, beti izan gara ongiatorriak.

Kuraiako bi kide, Galder eta zu, Dut-eko kide ere bazarete. Baduzue asmorik jarraitzeko?

Inoiz ez dugu Dut amaitutzat eman. 9 urte elkarrekin jotzen ibili ostean, atsedena behar genuen. Batzuek Kuraia izan daiteke Dut gelditzearen errua, baina ez da egia. Gauzak egiteko ilusioa eta gogoa dugunean, bueltatuko gara.

Punk-rocka eta antzeko estiloak euskaraz egiten bakarrenetarikoa zarete. Zelan ikusten duzue esparru hori?

Agian Kuraiaren sorreraren arrazoiak hori izan zen. Egiten dugun musika berria ez izan arren, euskaraz egina da, eta bazegoen halako hutsunea. Nik beti izan ditut gustuko estilo horiek, eta hemen ingelesez edo gazteleraz jorratu izan dira. Hala ere, gero eta talde gehiago daude euskaraz antzeko estiloak egiten dituztenak: Captain Nemo, Dirtyes edo Surfing Kaos datozkit burura.

Oro har, gaur egungo zein musika taldek ipintzen dizu oilo ipurdia?

Gaur egun musika ona egiten da Euskal Herrian, hainbat estilotan gainera: Zein?, Neubat, Inoren Ero Ni (Bap!-eko kide ohien taldea), Eraso!, Atom Rhumba, Ruper Ordorika, Señor No, Anari, Afrika... Estilo bakoitzean badago jendea gauzak gustu onaz egiten.

Zer eskaintzen du Kuraiak zuzenean?



Kuraia taldea hainbat musikari ezagunek osatzen dute, eta zuzeneko indartsuak egiten ditu.

Indarra, energia eta adrenalina. Laurok (Joseba Ponce; Fernando Sapo, abeslaria; Mikel Anestesia, baxu jotzailea; eta Galder Dut, bateria jotzailea) sortzen dugun musikarekin, ikusleek begiak itxi, burua astindu eta zoramenera arte dantzatzeko dute.

Batzuek krisia dagoe-

la diote eta musika kontsumitzaile gutxiago duedela, baina talde gutxi batzuek, zuek tartean, areto gehienak betetzen dituzue. Gauzak ez daude hain gaizki?

Guretzat ez, guk ezin izango genuke analisi hori egin. Jendeak oso ondo erantzun du. Egia da beste kon-

zertu batzuetara joaten naizenean jende gutxi egoten dela. Normalean, jendea ez da joaten ezagutzen ez dituen taldeak ikustera. Kontzertu eta taldeen saturazioa, beste mota bateko alternatibak, dirurik eza... Askok izan daitezke horretara bultzatzen duten arrazoiak. Italian egon ginenean gauza bera zioten, gero eta jende gutxiago joaten dela kontzertuetara. Euroaren etorrerarekin batera gertatutako fenomeno dela zioten.

Irailen AzkenaRock jaialdian joko duzue, Estatuan dagoen jaialdi

rock-and-rollero ospetsuenean. Halako taldeekin jotzeko ilusiorik baduzue?

Halako jaialdietan jotzea garrantzitsua da, euskaraz abesteagatik ate asko ixten dizkigutela. Normalean halako musika entzuten duen jendeak aurreiritziak dauka eta batzuek leku kampo egon gaitezke, baina zuzeneko talde indartsua gara, eta aurreiritziak apurtzen saiatuko gara. Jakina talde batzuekin jotzeko ilusioa dugula, horietako batzuk miretsi egiten ditugu-eta!

“Gure gune naturala areto txiki eta itxiak dira. Plazetan eta jaialdi erraldoietan galduago sentitzen gara”

TROKO

Ondo pasatu San Juanetan

Erdiko kale 14 · ARRASATE · Tel.: 943 79 46 94

SAN JUAN



JAI GIRO JATON

ETAN ERE...



=

BENGOA
BASATI
BIONA
JAI ZALE
EKAITZ
BRANKA
BOLIÑETE
LORA
EXPRESS
GURE LEKU
ITZALA
AMETS
MONTE
IRATI

ORRA GEUREAN



NACEX

Telefonoa: 943 79 92 77 / Orokorra: 900 100 000
www.nacex.com



ZUTARRI S.L.

Eraikuntza enpresa

Zuekin lanean
kalitate eta konfiantza osoz.

San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

Deitu konpromisorik gabe:

Tel.: 943 79 67 78. Faxe: 943 77 10 09

zutarri@infonegocio.com

Zerkaosteta 17 · 20500 ARRASATE

MUSIKA

Ruper Ordorika, Trio Chamuyo eta Euskadi Gazteko Disko Festa

Oñatiko musikariaren kantuak, Argentinako tango eta milongak eta Joseina Etxeberriaren 'show'-a, aukeran

IKER BARANDIARAN

San Juanetan musika emankizunak ikusteko aukera asko izango dira. Hiru hauek nabarmendu ditugu: Ruper Ordorika, Trio Chamuyo eta Euskadi Gazteko Disko Festa.

Ruper Ordorikak oso ibilbide luzea dauka eta oso ezaguna da gure artean; gero eta gehiago, gainera. Baina ez du kontzertu askorik egin Arrasaten. Orain dela bi urte, Udalak San Juanetan Monterronera eraman gura izan zuen, baina azkeneko orduan eguraldiaren erruz kontzertua bertan behera gelditu zen. Handik hilabete batzuetara, musikari oñatiarrak Amaia Udál Antzokian egin zuen haren ordezkoko kontzertua.

Ruper Ordorikak 80ko hamarkada ezker darama diskoak grabatzen, Sarriandianaren eta Atxagaren testuak musikatzeko eta kontzertuak egiten. Hainbat urtean Madrilgo Nuevos Medios diskoetxearekin lan egin zuen, eta Euskal Herrikanpo hainbat kontzertu egin izan ditu. Horregatik, ezaguna da Espainiako Estatuan ere bai.

Orain dela lau zapabost urte, Irungo Esan Ozenki diskoetxearekin *Gaur* izeneko zuzeneko diskoa kaleratu zuen; Bilboko Kafe Antzokian grabatu zuen. Horren ostean, Metak diskoetxearekin —Esan Ozenkiren oinordekoarekin— *Kantuok jartzen ditut* lana kaleratu zuen. Azkenaldian, kantu horiek aurkez-

ten dihardu, eta kontzertu ugari egiten dabil.

Azkeneko lanak AEBetako musikariekin grabatu ditu: Kenny Wollesekkin, Ben Monderrekin eta Jonathan Maronekin, hain zuzen ere. Baina zuzenean, euskal musikariz osatutako Mugalaris taldearekin jotzen du. Bi taldeak oso musikari onez osatuta daude, eta ez batzuek ez besteek ez dute inoiz kale egiten. Horra hor diskoetako eta zuzenekoetako emaitzak.

Ruper Ordorika dagoeneko klasiko bilakatu da Euskal Herrian. Are gehiago, azken urteotan ikuslearen eta jarraitzaileen gorakada nabarmena izan du. Ordorikaren ustez, horren arrazoia izan daiteke azkeneko diskoekin lortu duten soinua gogorrago eta esperimentalagoa. Bere musika ez dela hainbeste aldatu azpimarratu zuen Ordorikak.

Ekainaren 26an, Ruper Ordorikak kontzertua egingo du Monterron parkean, 22:30ean.

ARGENTINAKO KANTUAK

Trio Chamuyo taldea hiru lagunek osatzen dute: Aretxabaletako Juan Luis Lekunberrik eta Euskal Herrian bizi diren bi argentinarrak, Pancho Cruzek eta Fernando Colettik. Orain dela bi urte elkartu ziren, Lekunberri Argentinako kantuak erakutsi zizkioten eta ordutik hona abesti horiek jotzen dihardute. Euren kontzertuetan, besteak beste, tangoak, milongak, samba... entzun daitezke. Betiere, dantza daitezkeen kantuak jotzen dituzte.



GOIENKARIA

Ruper Ordorika musikari oñatiarrak jarraitzaile asko ditu Arrasaten.

Egiten dituzten zenbait kontzertutara Donostiako Tango Eskolako bi bikote eramaten dituzte, dantza erakustaldia egiteko eta ikusleek eurekin dantza egin dezaten. Arrasatera lau dantzari etorriko dira.

Trio Chamuyoko lagunak pozik daude, honako hau Debagoienean jotzen duten lehenengo aldia izango delako.

Chamuyo izena gazte-lera zaharretik dator. *Chamuyar* hitzak esan gura du hagin artean berba egitea, Madrilan eta Argentinan.

Ekainaren 26an egingo dute kontzertua, Herriko Plazan. 20:00etan izango da.

DISKO FESTA

Euskadi Gaztea irratiko Joseina Etxeberria esatari ezagunak azkeneko udak

herriz herri pasatu ditu Euskadi Gazteko Disko Festa muntaiarekin plazak dantzan jartzen. Aurten ere asmo bera dauka, eta dagoeneko egin du hitzordua Arrasateko Herriko Plazan.

Aurretik Arrasatera birritan ekarri dute Euskadi Gazteko Disko Festa, eta bietan izugarritzko arrakasta izan du. Joseinak musika bloke batzuk pres-

tatuta izaten ditu, eta inprobisatu ere egiten du. Besteak beste, musika elektronikoa, latindarra eta rocka tartekatzen ditu. Aurten ere, gaztetxoek, batez ere, egingo dute gogoz dantza Herriko Plazan.

Ekainaren 25ean, Euskadi Gazteko Disko Festa Herriko Plazan ipiniko dute. 22:30erako egin dute hitzordua.

Trio Chamuyo aretxabaletar batek eta bi argentinarrak osatzen dute. Tangoak eta milongak jotzen dituzte

Euskadi Gazteko Joseina Etxeberriak musika elektronikoa, latindarra eta rocka tartekatuko ditu Herriko Plazan

Uarkape jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak,
eguneko menuak, karta

San Juan zoriontsuak !

Otalora Lizentziaduna 10
Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

ELKARRIZKETA JOKIN LABAYEN AED-KO BERTSO ESKOLAKO KIDEA

“Arrasaten oso bertsolari gutxi daude; bertsolaritza ezagutuko balute, gehiago egongo lirateke”

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, bertso jaialdia egingo dute Monterronen. AEDk antolatu du, Udalaren laguntzarekin, eta honako lagunek esku hartuko dute: Jokin Labayen, Manex Agirre, Iratxe Ibarra, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Mañukortak.

AEDk bertso jaialdia antolatu du, eta zu zaitugu arrasatear bakarra. Herrian bertsolarien hutsunea daukagu?

Bai, zelanbaiteko hutsunea badago. AEDko Bertso Eskolan bi arrasatear gaudete eta kantuan neu bakarrik ibiltzen naiz. Halako herri handi baten bertsolari gehiago egon beharko litzateke, baina euskararen egoera ez da onena, eta umeak beste gauza batzuetan dabilte. Bertsolaritza gehiago ezagutuko balute, ziur animatuko lirateke. Etorriko dira beste bertsolari batzuk, ziur.

AEDko Bertso Esko-

lako kide zaitugu. Zer behar da eskolan esku hartzeko?



Ez da ezer behar, bertsolaritza ezagutzeko gogoia besterik ez. Egubakoitzero, 19:00etan, Manex, Lierni, Nerea, Enaitz, Iñigo, Kepa eta zazpiok elkartzen gara AEDko txokoan. Bertsotan ibiltzen gara eta afaldu egiten dugu. Gura duena etor daiteke, abestera, afaltzera edo entzutera.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan esku hartu zenuen, Maritxu Kajoi egunean. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Oso esperientzia polita izan zen. Maritxuko eskapularioa jantzita eraman nuen, eta lagunak trajea jantzita agertu ziren. Lehenengo aldia zen halako txapelketa serio baten esku hartzen nuela, eta nire maisu izandako Asier Iriondo-rekin abestea tokatu zitzaidan. Agurra Maritxu Kajoi-ren gainekoa egin nuen.

Jaialdia Monterronen egingo duzue, eta San Juanetan. Lekua, eguna eta kartela proposak dira?

Niretzat bai. Monterro-



X.D.Z.

Jokin Labayen da Arrasateko bertsolari finena.

“Kartela oso ona da, eta halako jaialdi baterako Monterron oso leku aproposa da, aukera asko ematen ditu”

“Gazte asko bertsolaritzara gerturatzen ez direnez, gaztetxeetan kantuan hasi gara, eta harrera oso ona izan da”

nek aukera asko ematen ditu, eguraldia okertzen ez bada. Monterronen abestuko dudana lehenengo aldia izango da. Iaz saiatu ginen jaialdi berezi bat egiten, baina lekuz aldatu behar izan genuen. Kartela oso ona da: Mañukorta ez da bertsolari arrunta eta gustuko dut; Manex eta Iratxe lagunak ditut; eta Maiaren eta Iturriagaren bertsoak txikitatik entzun ditut.


Bilbon Kazetaritza ikasketak egiten zabilta. Etorkizunean zure burua kazetari moduan ikusten duzu?

Ez daukat pentsatuta

zer izan gura dudana. Kazetari lan batzuk egin izan ditut Bertsolari Elkarteko eta *Argia*-rako, eta gustuko dut. Irratiarekin proba egin gurako nuke.

Ikasle izateaz gain, irakasle ere bazaitugu. Konta egiguzu zertan zabilta hainbat eskolatan.


Bai, Amurrioko Bertso Eskolako irakaslea naiz. Bitxia da; ikasle batzuk ni baino nagusiagoak dira. Horrez gain, ibarreko hainbat eskolatan 9 eta 11 urte bitartekoei bertsolaritza erakusten diet astean behin. Oso gustura dabilta.



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE



Lizarralde

kirolak

Ondo ibili San Juanetan!

**Bizikleten salmenta
eta konponketa**

Oñati
Olakua, 16.
Tel.: 943 78 29 86

Arrasate
Foruen plaza, 1-2
Tel.: 943 79 91 47



HORTZ KLINIKA
UARCAPE

*Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak*

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

SPORT

Key

poltsiko guztietan egongo den giltza



Giltzaren kopia egiterakoan eska itzazu zure ohiko saltokian

gora San Juan!

JMA 

www.jma.es

DANBORRADA

Danbor hotsa nagusituko da San Juanetan

Haurren danborradan 130 gaztetxo inguru izango dira, eta 240 lagun inguru nagusienean

XABIER URZELAI

Haurren eta nagusien danborradek behar duten protagonismoa izango dute San Juan jaietan. Aurten ere ez dute arazorik izan jendea batzeko, fundamentuzko danborrada egiteko.

Beste urte batzuetan danborrada egiteko jende faltan egon badira ere, azkenean bi urteotan ez da horrelakorik izan, eta seinale ona da hori. SUDCeko lagunak ez dute aparteko ahalginik egin behar izan jendea batzeko, San Juanek merezi duten moduko danborrada egin ahal izateko. Edozelan ere, horrek ez du esan gura SUDCekoek lanik egin ez dutenik, ezta gutxiago ere.

Gaztetxoak maiatzaren 8an hasi ziren entseguak egiten, eta ordutik hona zapaturu ibili dira jo eta ke lanean. Nagusiak bi aste geroago hasi ziren entseguak egiten; maiatzaren 26a ezkerro eguazteneko elkartu dira, eta eguazteneko ibili dira danborrak jotzen.

BIHAR, UMEAK

Haurren danborrada bihar bertan izango da. 19:00etan hasita, gaztetxoaren ardura izango da Mondragoeko kaleak danbor hotsez girotzea. Nafarroa etorbidean hasiko dira, eta Garibai etorbidea zeharkatu eta gero, Maala kalea igaroko dute. Gero, Portaloia pasa eta Erdiko kaletik Herriko Plazaraino iritsiko dira. Ikusten denez, aurtengo ibilbidea ezberdina izango da, Biteri etorbidean lanak egiten dabilta-eta. Hala, bide hori hartu beharrean, antolatzaileek erabaki dute Maala kaletik pasatzea dela aukera onena.

SAN JUANETAN PROTAGONISTA

Haurren danborradan, danborrariak, barril-joleak, gastadoreak, ikazkinak, kantinerak eta eskoziar jantzitakoak izango dira. Gainera, argazkian azaltzen diren lau gaztetxoak protagonista izango dira herriko jaietan. Aitor



Ezkerretik eskuinera Aitor Abarrategi, Joana Galan, Marta Ugarte eta Alazne Salterain.

Abarrategi izango da jenerala, eta Joana Galan Arrasateko ordezkaria. SUDC elkarteko ordezkaria, berriz, Marta Ugarte izango da, eta Alazne Salterainek eramanango du Ikurrina.

SUDCekoak, gainera, irrikaz daude aurtengo karroza kalera ateratzeko. Andoni Altzelai SUDCeko kidearen esanetan, karroza egiten ibili direnek lan polita egin dute: "Guretako urtero izaten da karroza berezia, baina nik uste dut aurtengoa jendeari asko gustatuko zaiola. Nolabait esatearren, irudi esanguratsua dela esango nuke. Baina, sorpresa

denez, arrasatearrek danborrada egunera arte itxaron beharko dute". Dakiguna da karroza ez dela txikia izango, 15-20 neska mutiko joango dira-eta karroza gainean. Ezin ahaztu, baina, norbaitek egon behar duela gaztetxoaren barril eta danbor doinuei musika jartzen, eta Arrasate Musikaleko Bandak egingo du lan hori.

NAGUSIENA, 23AN

Hala, gaztetxoaren danborradak giroa berotu eta gero, nagusiena izango da San Juan bezperan, ekainaren 23an. 22:30ean hasiko dira, eta ibilbidea hau-

rrek egingo duten bera izango da. Nagusien danborradan bost konpainia izango dira: Beti Alai konpainiakok barrila joko dute. Beti Gazteko emakumeen konpainiak, berriz, danborra izango du lagun. Montxonon konpainiak ere barrila izango du gerriari lotuta, eta Txalaparta elkartekoek eta eskoziar jantzita joango direnek danborra joko dute. Nagusiak orain dela hilabete hasi ziren entseguak egiten, baina gehienek ez dute entsegu askorik egin behar, dagoeneko neurria hartu diete-eta danborradako doinuei.

SUDCekoak irrikaz daude aurtengo karroza kalera ateratzeko; 15-20 gaztetxo joango dira karroza gainean

Nagusien danborradan bost konpainia izango dira: Beti Alai, Beti Gazte, Montxon, Txalaparta eta eskoziarrak

Gora begira

Joan den urtean nagusien danborradan bota zuen euri zaparrada kontuan hartuta, seguru aurten gora begira egongo dela bat baino gehiago. Gura beste euri bota bazuen ere, joan den urtean inor ez zen kikildu, baina egia da ekitaldi hori ez zela beste urte batzuetakoa bezain ikusgarria izan. Gainera, ez da komeni jantziak eta danborrak bustitzea.

Prestaketa lanetan hilabete eman eta gero, penagarria izango litzateke euriak danbor hotsa itotzea. Hori, baina, San Juanen eskuetan dago.



Espezialista gorputz eta aurpegi estetikan

Orain ere, LASER bidezko depilazioa:
Argi Pultsatua eta Alejandrita.

Konfiantza osoarekin!

San Juan zoriontsuak



AMAGARA
ESTETIKA ZENTRUA

Erdiko kale 54 behea
Tel.: 943 79 09 09
20500 Arrasate

TXOSNAK

Txosnak, San Juan jai herrikoien alde

Udalak izan duen jarrera salatu eta egitarau alternatiboa aurkeztu dute txosna-guneko taldeek

XABIER URZELAI

Aurten, txosnetako egitaraua ekitaldiz beteta dator. Udala-ekin izan dituzten desadostasunek ez dute galarazi txosna-gunean zer ikusi, zer entzun eta orokorrean zerekin gozatu izateko.

Joan den urteko San Juanetatik aurtengo-etara hainbat aldaketa izango dira; txosna-gunean bai, behintzat. Hasteko, herriko talde bakoitzak txosna bere kasa jarri beharrean, aurten, herriko zortzi taldek bat egingo dute eta guztien artean jarriko dituzte txosnak.

JAI HERRIKOIEN ALDE

Horrez gain, lelo propioa izango dute: *Herrixa jai xan garra!* Horrekin, txosna-guneari antolatzen duten gazteek azpimarratu gura dute herria bera dela herriko jaietan protagonismoa izan behar duena, eta herriak berak bultzatu behar dituela herriko jaiak. Horren harira, talde guztiek jai herrikoien aldeko aldarrikapena egin dute. Beste

berrikuntza bat da txosna-gunean zer edan egoteaz gain jateko aukera ere egongo dela.

Orain dela bi urte jarri zuten lehenengoz oilaskoak eta ogitartekoak saltzeko txosna, baina joan den urtean ez zen horrelakorik egon. Aurten erabaki dute txosnetan zer jan egon behar duela, eta horretarako txosna bat jartzeaz gain, mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte Kondekuako zelaietan. Aurten, baina, ez dute oilaskorik salduko; besteak beste, ogitartekoak, hanburgesak eta patatak egongo dira salgai. Txosna hori 20:00ak aldera irekiko dute eguaztenetik zapatuta arte, eta gainontzekoekin batera itxiko dute, gaueko ordu txikietan. Lau txosna horietan lan egiteko jendea behar da. Horrenbestez, jakin, laguntzeko asmoa daukaten gazte edo koadrilek Irati tabernan eman dezaketela izena.

EGITARAU ZABALA

Txosnak eguen arratsaldean irekiko dituzte. Ireki aurretik, baina, aldarrikapenarako aukera izango da alde zaharrean zehar egingo duten triki-poteoan. 20:00ak aldera irekiko dituz-



Txosna-guneko taldeek prentsaurrekoa egin zuten martitzenean, eta besteak beste, Udalak jaien inguruan izan duen jarrera kritikatu zuten.

te txosnak, eta ireki berri, bertan afaltzeko aukera izango da; giroak laguntzen badu, leku gutxitan Kondekuako zelaietan moduan.

22:30ean kontzertua izango da, baina antolatzaileek ez dute taldearen izena eman gura izan, sorpresa izango da-eta. Gau erdia pasatuta, 01:00etan, presoan aldeko kale agerraldia egingo dute, Seber Altuben hasita. Eta, mani-

festazioaren ondoren, beste kontzertu bat egingo dute Kondekuan. Kontzertu horretan nork joko duen ere sorpresa da, baina antolatzaileen esanetan, bi kontzertuak herriko taldeek egingo dituzte.

ADIN GUZTIENDAKO EKITALDIAK
Hurrengo egunean, ekainaren 24an, adin guztien dako ekitaldiak izango dira. Lehenengo, herriko gazte-

txoen txanda izango da, 16:30ean umeendako ikuskizuna egongo da-eta. Gero, berriz, gazte zein nagusiek bertso saio ederraz gozatu ahal izango dute: Zaharrak Berri Tour-ek antolatuta, 21:30ean, Fredi Paya, Jokin Uranga eta Xabier Silveira izango dira taula gainean. Eta, emanaldiekin amaitzeko, 01:30ean Nekin taldeak kontzertua egingo du. Nekin Tolosa aldeko musi-

ka taldea da, eta euskal kanten bertsoak egiten ditu. Abesti ezagunak jotzen dituztenez, arrakasta handia izaten da euren kontzertuetan. Eguen gaua girotzeko ezin aproposagoak izango dira.

Egubakoitzean, 19:30ean, Etxerat elkarteak hileko azken egubakoitzean egiten duen deialdiari jarraituz, bilkura egingo dute Herriko Plazan. Gero, 20:00etan, sagardo eta pintxo dastatzea egingo dute txosnetan, eta triki-poteoa eginez jarraituko dute jai giroan.

Orain arte, San Juanetako azken eguna makal samarra izan da, baina aurten mondragoetarrek behar den moduan ospatuko dute. Izan ere, 14:00etan herri bazkaria izango da txosnetan. Bazkariaren ondoren, txikiteo saltseroa izango da Aretxabaletako batukadak lagunduta, eta koadrilek olinpiadak egingo dituzte. Behar den moduko kontzertuarekin amaituko dute: Arrasateko gaztetxean, Anger eta Kuraia.

Txosnen guneko egitaraua

EGUAZTENA, 23

- 18:00 Protesta triki-poteoa alde zaharrean zehar.
- 20:00 Txosnen irekiera.
- 22:30 Kontzertu sorpresa txosnetan.
- 01:00 Presoen aldeko kale agerraldia Seber Altuben hasita. Horren ondoren, beste kontzertu sorpresa bat izango da.

EGUENA, 24

- 16:30 Umeendako ikuskizuna.
- 21:30 Zaharrak Berri Tour bertso saioa. Fredy Paya, Jokin Uranga eta Xabier Silveirarekin.

01:30 Nekin taldearen kontzertua.

EGUBAKOITZA, 25

- 19:30 Etxeratek deitutako azken egubakoitza. Herriko Plazan kontzentrazioa.
- 20:00 Sagardo eta pintxo dastatzea txosnetan. Gero, triki-poteoa.

ZAPATUA, 26

- 14:00 Herri bazkaria.
- 16:00 Aretxabaletako batukadarekin txikiteo saltseroa kaleetan zehar.
- 19:00 Olinpiada olinpikoak.
- 22:30 Kontzertua gaztetxean: Anger eta Kuraia.

MURUAMENDIARAZ
GOZOTEGIA

Jai goxo-goxoak izateko

Erdiko kale 28 • Tel.: 943 79 15 34 Ondo pasau San Juanak!





VISA ORO 1,2,3 TP
TXARTELAREKIN

LAGUN BAT EKAR EZAZU
EROSKETAREN

%10

ITZULIKO DIZUEGU

GASOLINDEGI GUZTIETAN,
HOTEL GUZTIETAN,
ETA JATETXE GUZTIETAN. (URTEAREN AMAIERA BITARTEAN)

Txartelik ez baduzu, zatoz lagun batekin uztailaren 31 baino lehen gure bulegoetara, eta eskaintza berezi hau onartuz gero, beharpen ugari izango dituzue.

Eska ezazu zure txartela **902 123 091** telefono zenbakian

Banesto


Banketxe batek bezeroak zur eta lur uzteko ordua da

Banestoren 123 Programaren baldintzen arabera. Promozio hau balia garia da 2004ko maiatzean, ekainean eta uztailean egiten diren kontratu berrietzat. Promozio honen baldintza berezietz informazio zehatzak, behar diren bitartean.



**Era guztietako
berrikuntza lanak
Leihoak**

**Neurri guztietako atariak
Zoruak, eta abar.**



Ondo ibili San Juanetan!

Zubillaga 20 OÑATI

151 posta-kutxa ARRASATE

Tel.: 943 78 35 00 - Faxa: 943 71 82 54 - Poltsikokoa: 627 48 58 13

E-maila: bidaburu.h@eukalnet.net

TABERNAK

Hainbat kontzertu egingo dituzte tabernetan

Arrasateko zazpi tabernak kontzertuak egingo dituzte, baina taldeak zehaztu barik daude

XABIER URZELAI

Joan den urtekoari jarraituz, aurten ere kontzertuak izango dira Arrasateko hainbat tabernetan. Aurten, baina, egitaraua txosnakoekin batera egingo dute.

ten, eta izan zuten arrakasta kontuan hartuta, aurten ere animatu egin dira. San Juan jaiak ahal zuten neurrian girotzeko egin zuten, eta tabernak goraino bete ziren. Ekimen hori ez da berria. Lehen, Intsumiso Egunean antolatzen zituzten horrelako kontzertuak, eta herriko talde askok egun horretan egin zuten euren lehenengo zuzeneko emanaldia.

KONTZERTUAK ETA DJ-AK
Lerro hauek idatzi ditugunerako, baina, alde zaharreko tabernekin oraindik zehazteke zeukaten taberna bakoitzean ze taldek joko duten. Jakin badaki-

Arrasateko alde zaharreko zazpi tabernak —Basati, Iturriotz, Ekaitz, Jai-Zale, Iluntz, Biona eta Irati— kontzertuak antolatu dituzte San Juanetarako. Joan den urtean taberna horiek hainbat kontzertu antolatu zituz-



ANDER GILLENIA

Lehen Intsumiso Egunean tabernetan egiten zituzten kontzertuak San Juanetan egiten dituzte orain.

gu Irati tabernan Brigada Criminal taldeak joko dute, ekainaren 26an, 18:00etan. Gainontzeko tabernekin egubakoitzean, hilaren 25ean, egingo dituzte kontzertuak. Biona tabernan Ozen taldeak

egingo du emanaldia. Ekaitz tabernan, berriz, Los Cretinos eta Los Chicos Boom taldeek joko dute, baina baliteke azken talde horrek beste izen batekin jotzea. Gainera, hori ez da izango Ekaitz tabernan San Juanetan egongo den emanaldi bakarra, egunean, hilaren 24an, DJ Kaiet izango da eta 00:00etan.

Irati Brigada Criminal taldeak joko du, ekainaren 26an. Gainontzeko kontzertuak ekainaren 25ean izango dira

Egubakoitza 18:00etan

Ekaitzen, Los Cretinos eta Los Chicos Boom

Zapatua 18:00etan

Brigada Criminal, Iratin

Kamisetak San Juan osterako

Alde zaharreko tabernekin urtero egiten dituzte kamisetak, baina Aitor Urizarren esanetan, aurten ez dute kamisetarik aterako San Juanetan: "Pentsatu dugu kamisetak San Juan osterako ateratzea, bestela ere kamiseta asko egoten dira eta salgai. San Juanetan herriko talde bakoitzak egiten du kamiseta, eta tabernariok nahiago dugu apur bat itxaron eta kamisetak uztaile hasieran ateratu".

Horrez gain, tabernariok ezin izango dute San Juanetako azken egunean egin ohi duten bazkaria egin: "Bazkari hori geroago egin beharko dugu. Aurten, San Juanetako azken eguna domeka izango da, eta guretzat ez da egun aproposena bazkaltzera joateko, gau gogorra izango dugu eta".

CREATIVO **ARQUERO**

CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4 - EO -11 Aretxabaleta
943-790151 608-772867 679-455764

San Juan jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

SARA **MERENDERUE**

Tel.: 973 77 15 86

San Juanetan etxean nahi ditugu!

DRAGOI JANA

Dragoi Jana: euskara sustatzeko ekimena

Dragoi handia izan beharko du aurtengoak, bostehun txuleta eman beharko ditu-eta

XABIER URZELAI

Bostehun laguni afaltzen emateko fundamentuzko dragoia ekarriko dute San Juanetan. Handia izateaz gain, gainera, okela onekoa izango da.

Dagoeneko hitzordu garrantzitsu bilakatu da AED, AEK eta Euskal Herrian Euskaraz taldeek antolatzen duten Dragoi Jana. San Juan egunean ez dago Herriko Plazan ondo afaltzea modukorik. Horretarako, baina, eguraldiak lagundu

egin behar du. Azkeneko bi urteotan herritarrek Uarkapeko pilotalekura joan behar izan dute dragoia jatera, eta argi dago ez dela gauza bera. AEDko lagunak ere uste berekoak dira: "Azkeneko bi urteotan eguraldiak ez du lagundu, eta Uarkapen egin behar izan dugu Dragoi Jana. Badakigu Herriko Plazan eginez gero jende gehiago animatzen dela, eta politagoa da pilotalekuan baino Herriko Plazan afaltzea. Giroa ere bestelakoa izaten da".

Esan dugu Dragoi Janean bostehun lagunendako lekua egongo dela, eta San Juan egunean bertan txartelak erosteko aukera izan-



ARRASATE PRESS

Ea aurten eguraldiak lagundu eta Dragoi Jana Herriko Plazan egiterik dagoen.

go bada ere, komeni da azkar ibiltzea. Txartelak AEDn, AEKn, Monte eta Iturriotz tabernetan daude

salgai, 12 eurotan. Menuaren ganean ez da aldaketarik izango: dragoi txuleta ederra piperrekin eta

letxugarekin, eta gazta irasagarrarekin (membrilloa). Afaldu aurretik, baina, gosea egiteko, batukada bertso poteoa egingo dute alde zaharreko tabernetan. Horretarako, Legazpiko talde bat etorriko da txikiteoa girotzera, eta AEDko Bertso Eskolak jarriko ditu bertsoak. Poteoa herritarren esku utziko dute.

Menuan ez da aldaketarik izango: dragoi txuleta ederrak piperrekin eta letxugarekin, eta gazta irasagarrarekin

**Eguena, 24
21:00etan**

Dragoi Jana. Eguraldiak laguntzen badu Herriko Plazan izango da. Bestela, Uarkapen.

Ohitura zaharrak erreperatu guran

Dragoi Jana gero eta sustraituago dago herriko jaietan, baina herri giroan afaltzeaz gain, antolatzaileek argi utzi gura dute euskararen alde egiteko ekimen bat ere badela. Eta, horretaz jabetzeko afari hori nortzuek antolatzen duten ikusi besterik ez dago.

Gainera, Euskal Herrian ohikoak diren afalosteko kantak bultzatu gura dituzte. Ohitura horrek behera egin du, eta horrelako herri afariak aproposak dira galtzen dabilena erreperatuzko. Horretarako, Portaloi Kantu Taldea izango da afalosteko giroa berotzen, eta txalaparta eta trikitilariak izango dituzte lagun.

San Juan gaua ondo hasi gura duenak badaki non duen aukera paregabea.

**PUB
HAIZEA**



**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiaik eta aulkiak

LAKET

Bonaventure
Diesel
Pepe
Levis

Otatora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

eya

Ondo pasatu
San Juanak

etxetresna elektrikoak

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE


ZABALA

oinetakoak


56 urtean elkarrekin ibili gara

Ospa ditzagun San Juanak!


Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27




CAD/CAM



Prototipoak



Kontrolerako lanabesak



EKIDE S.L

San Andres auzoa 2. 4A pab.

20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 43

Faxa: 943 71 21 43

e-mail: ekide@sarenet.es

*San Juan jai
zoriontsuak pasa
ditzazuela opa
dizuegu!*



**DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...**

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A
Gipuzkoa etorbidea 32 Tel.: 943 79 16 55
20500 ARRASATE



DANTZA IKUSKIZUNA

Tradizioa eta egungo teknikak uztartuta

Aukeran dantza taldeak 'Izena duen guztia omen da' ikuskizuna egingo du Monterronen

IKER BARANDIARAN

Hilaren 24an, Aukeran taldeak Izena duen guztia omen da lana egingo du Monterronen, 23:30ean. Dantza tradizionala eta gaur egungoa uztartuko ditu.

Dantza ikuskizun entzutetsua ekarriko dute Arrasatera. *Izena duen guztia omen da* euskal kulturaren antzinako mitoetan oinarritutako ikuskizuna da; Euskal Herrian kristautasuna ezarri aurreko garaikoa, hain zuzen ere. Gizakia, mitohorien bitartez, ulertzen ez dituen gauzak azaltzen saiatuko da. Lan hori Aukeran dantza taldeak egingo du ekainaren 24an, Monterron parkean, 23:30ean.

Tradizioaren arabera, kanpainen errepikak, hau da, kristautasunaren etorrera irudikatzen duen metaforak, antzinako kulturaren jainkoak desagerrarazi zituen. Baina gizakiek, orain dela milaka urte beza, izarrei eta naturari begira jarraitzen dute, dituzten galdera guztiei erantzun bila. Horren harira, antzi-


nako kondairak hala esaten du: *Izena duen guztia omen da*. Eta, hain zuzen ere, hori hartu du ardatz dantza konpainia horrek.

Aukeran konpainiak ikuskizun horretarako *Sutargi* ikuskizunak (talde berak ekoitzi zuen) dituen elementu batzuk berriro erabiliko ditu. Honako hauek, besteak beste: zuzeneko musika eta dantza tradizionalaren eta gaur egungoaren uztarketa. Edozelan ere, bi lanen arteko estetika oso desberdina da.

Horrez gainera, giro bereziak lortzeko argiarekin asko jolastuko dute. Horretarako, hain zuzen ere, tula (ehun gardena) erabiliko dute. Horrek ahalbidertuko du eszenako sarreak eta irteerak iluntasunean egitea, eta musikariek eszenatokiaren atzealdearekin bat egitea, dantzarietako protagonismoa ken ez diezaieten.

EUSKAL MITOLOGIA

Izena duen guztia... ikuskizuneko jantzi guztiak taldeak berak irudikatu eta diseinatu ditu. Jantzi horiek *Sutargi* lanekoak baino sinpleagoak dira, ez hain sofistikatuak. Hala ere, garrantzi handia dute, eta Aukeran



Aukeran konpainia lehengo eta oraingo dantzak eta koreografiak uztartzen aitzindaria da.

taldeko kideen esanetan, jantziak lan horren elementu garrantzitsuenetakoa dira. Horrez gain, esan beharra dago jantzi horiekin ez dituztela mitologiako pertsonaiak bere horretan erakusten. Irudiak berdin kopiatu beharrean, antzekoak izango dira, eta ikusleei aditzera emango

diete zein pertsonaia irudikatu gura duten.

Dantza koreografiaren arduraduna eta Aukeran taldeko zuzendaria Edu Murumendiaraz bergarra da. Gidoiaren egileak eta eszenako zuzendariak J.A. Vitoria eta Garbi Losada dira. Horiez gain, beste lagun askok esku hartzen

dute emankizun horretan. Guztira, hamar lagunek dantza egingo dute ekainaren 24an, Monterronen: Edu Murumendiaraz, Aiert Beobide, Gotzon Poza, Eli Alberdi, Iune Aranburu, Maitane Muxika, Onintza Odriozola, Naikari Galarraga, Naia Yarritu eta Ander Errastik.

Dantzarietaz gain, bost musikariek ere esku hartuko dute ikuskizunean zuzenean: Sergio Lamuedra, Arantxa Ansa, Lourdes Alkorta, Ainhoa Izagirre eta Ainhoa Ansa arduratuko dira lan horretaz.

Izen handia hartu dute Aukeran taldeak eta haren ikuskizunek.

Aukeran konpainiak euskal mitologia eta antzinako usadioak gogora ekarriko ditu ikuskizun koloretsu horretan

'Izena duen guztia omen da' ikuskizunean, hamar lagunek dantza egingo dute eta bost lagunek musika joko dute



Oinezkoen ate automatikoak



JUBAR

Kataide industrialdea 18 • 110 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Faxe: 943 79 08 17 • jubarateak@euskalnet.net

- Garajeko atek
- Burdinazko pertsianak
- Automatismok
- Konponketak

- Urrutiko agente tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



HOTEL
MONDRAGON



Biteri etorbidea, 16 • ARRASATE
Tel.: 943 71 24 33 • Faxe: 943 71 23 43
Posta-e : hotelmondragon@hotelmondragon.com
www.hotelmondragon.com

CITROËN C2 BERRIA

URBAN SPORTS CAR

ABC
2004 URTEKO
AUTORIK ONENA



Citroën C2 berria ikustera etor zaitez, eta konturatuko zara halako auto batekin aspertzea ezinezkoa dela.

ONDO PASA SAN JUANAK!

 **CITROËN**

CITROËNEK EDOZER EGIN DEZAKE ZUGATIK

CHAPIME SCL TAILERRAK Citroëneko Kontzesionario Ofiziala

San Andres auzoa 5 Tel.: 943 79 45 22
ARRASATE

www.tchapime.citroen.es



CITROËN

IRUDI ZAHARRAK



Lehen danborradako damak-eta

San Juan jaien historiako une gogoangarri bateko argazkiak utzi dizkigute oraingo honetan: herrian egin zuten aurreneko danborradarenak, hain justu ere.

Udalpe elkarte gastronomikoak antolatu zuten aurreneko saio hura. "Donostian-eta egiten zutela ikusi eta guk ere herriko jaietan zerbait sartu behar". Hala xe hasi zirela kontatu digute aurreneko danborrada hura antolatzen ibili zirenetako batzuek.

Kontatu digute Udalpe elkarte ko lauzpabost lagun en artean antolatu zutela guztia. Hain zuzen ere, elkarte horretako artxibokoa da utzi diguten antzinako argazki hori.

Hala, 60ko hamarkadaren hasieran egin zuten aurreneko aldiz danborrada, 1961ean, hain zuzen ere. Jende askok parte hartu zuela esan digute, "ehun bat lagunek edo. Gainera, lehen, jaietan jendea ez zen kanpora joaten, orain bezala. Eta horrez gainera, inguruko herrietatik ere etor-

tzen ziren, Aretxabaletatik... Hortaz, danborrada kaleetik pasatzen zenean, jende ugari izaten zuten ikusteko zain.

Guri utzi diguten argazkian danborrada hartako damak ageritzen dira, danborradako beste zenbait partaidek lagunduta. Argazkia Udalpen dago aterata. Honako dama hauek agertzen diren argazkian, goian, ezkerretik eskumara: Maria Karmen Barrutia, Mila Berezibar, Natal Bengoa eta Juanita Arana, goian Maria Asun Arana dator (kaleko jantziekin) eta bukatzeko, zaldizkoaren jantziekin dagoena Angelines Bermejo da. Beheko lerroan, berriz, ezkerreko dama Mirexe Juldain da eta eskumakoa Karmele Barandiaran.

Gizonen artean, aurre-aurrean dagoena Luis Maidagan da, danborradako zuzendaria. Haren ezkerrean dagoena Jose Egi-dazu *Casino* da (antolatzaileetako bat), goian erdian dagoena sukaldaria Joxe Markiegi da eta bestea Francisco Goikoetxea.

Lehen danborradako sukaldariak

Ikusten duzuen bigarren argazki hori ere aurreneko danborradakoa da. Oraingoan, sukaldariak agertzen dira, lagun-talde handia, ikusten duzue-nez. Argazkiko guztiak identifikatzea ezinezkoa izan da. Kontua da jantzita dituzten txapelekin eta batzuek dituzten biboteekin gure berriemailei dezente zaildu zaiela identifikazio lan hori. Edozelan ere, honako hauek dira esan diguten izenak, ezkerretik hasita, zutik daudenak: Patxi Goikoetxea, Angel Garai eta J.B. Mendieta (purua duena). Haren ondokoa ezezaguna da, baita atze-atzean dagoena ere. Irribarretsu dagoen betaurrekoduna, aldiz, Carlos Garro izan daitekeela uste dute eta haren aurrean ezkerrean dagoena (makilatxo duena) Joakin Artola. Mikelete jantzita doazen artean, lehenengoa Aurelio Artze da, hurrengo mikeltea ezezaguna da eta baita bien erdiko gizona ere. Hurrengo biak ere (atzeak) ezezagunak dira. Atzeko aldean bibote handiekin

dagoena Juan Maria Azkarate da, haren ondokoa, betaurrekoduna Feliciano Aiestui da, hurrengoa Joxe Markiegi (urdaiazpikoa sorbaldu duena) eta azkena, kutzaraduna ezezaguna. Aurreko aldean begiratzen badugu, trajearekin dagoena Emilio Inda da, haren ondoan labanari eusten dagoena Perico Arriola da, ondoan Santos Azkoaga du eta eskuman aurrean dagoena J.M. Gallastegi da eta apur bat gorago dagoena Julio Otadui. Makurtutakoen atzean, ezkerrean erdi zutik dagoena P. Etxabe da, F. Bengoa du haren ondoan, Leon Mondragon da sor-dexka txikia duena eta haren ondoan izkinan dagoena F. Trojaola.

Danborradako kontuak esaten segituz, lehen aipatu dugu 61ean antolatu zuela Udalpeko aurreneko danborrada hura, eta 1967an arte segitu zuten Udalpekoekin lan hori egiten. 1967an, SUDC elkarteak hartu zuten errelebu. Kontatu digute, baita ere, danborrada hartan irteteko, hiru hilabete lehenago hasi zirela entseguak egiten.



Profesionalak gara.
Bai salmentan,
bai ondoren eskaintzen diren zerbitzuetan ere.




Mercedes-Benz

GOIKO-LENIZ
Araba Etorbidea z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 19 03

ZAHARRAK

80 urtetik gorakoek merezi duten omenaldia

Eguenean, San Juan egunean luntxa izango dute Abaroan eta omenaldia egingo diete

Aspaldiko ohitura da San Juan egunean Arrasateko 80 urtetik gorakoek omenaldia egitea. Horrela egin du Arrasateko Udalak azkeneko urteotan, eta aurten ere hitzordua egin dute.

Horretarako, gura izan duten 80 urtetik gorako arrasatear guztiak aurretik izena eman dute udaletxe-ko idazkaritzan. Hala egin dutenek egunean, San Juan egunean, 12:30ean Abaroara joan besterik ez dute.

Gutxi gorabehera 150 bat lagun elkartzen dira Abaroan egun horretan. Luntxa egiten dute eta hainbat sari banatzen

dituzte. Erretiratuak gustura joaten dira, aspaldiko lagunekin kontu-kontari ibiltzera.

UDAL ORDEZKARIAK

80 urtetik gorakoendako luntxa eta omenaldia 12:30ean izango dira. Eta omenaldi hori mezaren eta ohorezko San Juan Zortzi-koaren eta Agurraren ondoren izaten denez, alkatetik eta hainbat zinegotzik Abaroara joateko ohitura dute.

Erretiratuak eserlekuetan jarri ahala, luntxa zerbitzatzen diete. Besteak beste, halako jakiak izango dituzte egunean: urdaiazpikoa, budina,



Azkeneko urteotan, Brigida Monjek eskuratu du emakumezko nagusienaren saria.

patata-tortilla, kroketak eta pastelxoak.

Horrez gainera, Udaleko ordezkariak erretiratu guztiei opari bana emango

diete, eta han daudenen arteko gizonezko eta emakumezko nagusienari, opari horiez gainera, txapela eta lore sorta emango die-

te, hurrenez hurren. Azpimarratu beharra dago herrian gizonezko eta emakumezko nagusiagorik egon badagoela, baina ome-

Eguena, 24
12:30ean

Abaroa elkartean

80 urtetik gorakoek luntxa eta omenaldia izango dituzte.

naldia egiteko derrigorrezkoa da San Juan egunean han egotea. Osasun arazoak direla-eta ez dira erretiratu guztiak omenaldira joaten.

OMENDU EGINGO DITUZTE

Hainbat urtean San Juanetako omenaldira joandako gizonezko nagusien Candido Moraleja izan zen. Hainbat txapela eskuratu zituen bizi zen artean. Zoritxarrez, iaz hil egin zen.

Joan den urtean Juan Loiti izan zen omendu zuten gizonezko nagusien. Eta emakumezko nagusien Brigida Monje izan zen. Monjek 98 urte ditu.

Azken ordura arte ez dago jakiterik bi lagun horiek eta gainontzekoak ziur joango diren edo ez. Beraz, ez dago jakiterik zeintzuk izango diren aurtengo sariak eskuratuko dituztenak.

Jaietan herriko aitona-amonendako bereziki antolatutako ekintza gutxi daude. Horregatik, ahalik eta gehien disfruta dezatela urteroko omenaldia, eta baita orokorrean San Juan jaiak ere.



PATRICIA
CLARKS
YANKO
MASCARÓ
LOOKY
24 HRS
HISPANITAS
LODI
URSULA
PIELSA
CATS
KOLLFLEX
PLUMERS
WONDERS

OINETAKOAK

Yoar

Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86



Iturriotz 4. ARRASATE
Tel.: 943 79 14 84

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Zugan pentsatuz, laguntzeko prest

- Plantila bereziak, behar bakoitzak berea.
- Aluminioko gupil aulkiak; arinak, tolesgarriak eta elektrikoak.
- Ohe artikulatuak, koltxo bereziak.
- Lanerako oinetakoak.

Lagun-Aroko eta Osakidetzako errezetak hartzen ditugu.

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



ANBOTO

Ondo pasatu San Juanak!

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK, S.A.

AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Iturriotz 11 ARRASATE

Tel.: 943 77 14 11 / 943 77 08 82

www.inmoarrasate.com

ARRASATEKO GAITARIAK

25 urte lanean, eta beste 25 urtez jarraitzeko beldur barik

Urteurren berezia ospatzen dabilta aurten Arrasateko Gaitariak

UBANE MADERA

Jaiekin eta festa giroarekin lotu ohi dugun doinueta bat gaitarena da, gaitariak jaiero ibiltzen dira-eta lanean. Aurten, 25 urte bete dituzte herrikoek.

Askorendako Arrasateko Gaitari taldea etxekoa modukoa izango da; izan ere, mende laurdena daramatzate herriko eta inguruko herrietako jaiak girotzen. San Juanetan ere kalean ikusiko ditugu, ia egunero; horrez gainera, omenaldia egingo diete, Udalaren ize-nean. SUDCeekin batera, gaitariei ere egingo diete Aitortzeko Ekitaldia, ekainaren 27an, 13:30ean, osoko bilkuren aretoan.

Horrez gainera, San Juan egunean, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin batera kontzertua egingo dute, 13:00etan; hiru kantu joko dituzte: vals bat (erraldoiek dantza egingo dute), eta jota bat (Lore Gazteak eta Arrostitz talde-



Arrasateko Gaitarien 1982ko argazki bat: Esteban Dolara, Roman Barrutia eta Enrike Dolara.

tako dantzariekin); eta bukatzeko, gaitariak eurek bakarrik beste pieza bat joko dute, zailtasun handiagokoa, erakustaldi modura. Kontzertua Juan Artzamendi musikari zena-

Urteurrena ospatzeko bi ekitaldi nagusi egingo dituzte San Juanetan: kontzertua Arrasate Musikalekin eta erraldoien bilkura

ren omenezkoa ere izango da.

BESTELAKO EKITALDIAK

Horiek guztiak Enrike Dolara kontatu dizkigu, gaitari taldeko sortzaileetako

Eguena, 24 eta domeka, 27

Monterronen eta kalean

Kontzertua eta erraldoien bilkura.

batek. Gaineratu digu San Juanen azkeneko egunerako jai bat antolatu dutela: erraldoien bilkura: "Udalaren, SUDCen eta Txalaparta elkartearen laguntzarekin antolatu dugu"

GAITARIAK, GAUR EGUN

Sei lagunek osatzen dute gaur egun herriko taldea: Eduardo Abarrategik, Esteban eta Enrike Dolarak, Lander Lorenzok, Inaki Barrutia eta Jose Ramon Perezek. Herriko ia jai guztietan ibiltzeaz gain, kanpora ere aiskotan joaten dira: "Lehen askok ere gehiago. Orain bestelako ardurak ditugu. Edozein ere, orain Gasteizera joaten gara, *Blanketan*, Iruñera, San Ferminetan; Urretxurra...". Gaineratu digu euren irteerak gutxiu eragin dituzten arren ez direla aspertu: "18 urterekin edo 20 urterekin gauza ginen egun batean hiru herritan ibiltzeko, baina gogoak ere joan egiten dira. Dena dela, aurrera egiteko gogoz gabilta. Gainera, Arrasate Musikalen hasi behar dira eskolak ematen, eta espero dugu jende gehiago animatzea".

Maalako Errabala 27-behea ARRASATE

Tel.: 943 79 59 99

E-posta: udalatx@udalatx.com

Webgunea: www.udalatx.com



Udalatx
InmobiliariA

- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Aholkularitza Fiskala
- Errentamenduak
- Kontratuak

San Juan zoriontsuak izan!

Uriarte

Ondo pasau
San Juan jaixak!

Olarte 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Ogitarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

CORAZON DE ENCINA EXTREMADURAKO ZENTRO KULTURALA

Astelehenetik ostiralera eguneko mezua, plater konbinatuak, arrazioak, alde zurretik eskatutako oilasko errea eta ogitartekoak.

Espezialitateak: olagarroa, txerri-belarriak eta txerri-masaila.

Guztiontzako zabalik!!

Araba etorbidea 3 Tel.: 943 79 11 75.

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

LANDALUZE

HARATEGIA URDAITEGIA

Urdaiazpikoak

ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86

ARRASATE

uda honetarako
IKASTARO TRINKOAK eta errekuperazio-ikastaroak



2 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK TALDEKA

- Goiz eta arratsaldeko ordutegia
- Haurrak, gazteak eta helduak

IKASTETXEKO IRAKASGAIEN LAGUNTZA-ESKOLAK

- Matematika, hizkuntza, euskara, ingelesa

MULTIMEDIA-SISTEMA

- 07:30etatik 21:00etara, etengabeko ordutegia
- Mintzapraktika
- Ikasteko ordu mugarik gabe
- 17 urtetik gorakoentzat

- ingelesa
- frantsesa
- alemana

**2004-05 IKASTURTERAKO
MATRIKULA EPEA ZABALIK**



Arrasate - Gipuzkoa
Avda. de Álava, 4 ■ Tel.: 943 71 20 55

Oñati - Gipuzkoa
Olakua, 14 ■ Tel.: 943 71 60 00

secretaria@cim-idiomas.com ■ www.cim-idiomas.com



jai zoriontsuak !!



**amets
BAR**

- Pintxoak*
- Arrazioak*
- Ogitartekoak*
- Sandwichak*
- Hanburgesak*
- Plater konbinatuak*

San Juan jai zoriontsuak guztiontzat!

Ordutegia: Astelehenetik egubakoitzera 07:30etik aurrera
Zapatuetan 09:00etatik aurrera eta domeketan 11:00etatik aurrera
Otalora Lizentziaduna 23. Tel.: 943 77 09 23

Enkarguak ere hartzen dira.

IRRATIA

Jaietan, Arrasate Irratian egongo da zer entzun

Arrasate Irratiko mikrofonoak San Juanetako jai giroan, zuzenean, 10:30etik 13:00etara

XABIER URZELAI

San Juan jaiak irati uhinen bidez ere bizi ahal izango ditugu, Arrasate Irratiko esatariak kalean izango dira-eta jai giroaren berri emateko gertu.

Nerea Zubietek, Mainer Arregik eta Aitziber Aranburuzabalak emango digute aurten San Juanen berri Arrasate Irratian. Ekainaren 24an eta 25ean San Juanen gaineko saio berezia egingo dute 10:30etatik 13:00etara. Tar-

te horretan, kaleko giroaren eta orduan izango diren ekitaldien berri emango du zuzenean Mainer Arregik. Horrez gain, baina, Nerea Zubietek eta Aitziber Aranburuzabalak arratsaldeetan edo gauetan izango diren ekitaldien berri emango dute, San Juanetako ekitaldi esanguratsuak grabatu egingo dituzte-eta. Eta hori guztia etxeko irratiara ondo iristeko, Gaizka Vitoria ibilikó da teknikari lanetan.

Goizeko saio berezi horiek, gainera, arratsaldeko lehenengo orduan errepikatuko dituzte, 14:00etatik 16:30ak arte. Saio bereziak ekainaren



Mainer Arregi, Nerea Zubiete, Gaizka Vitoria eta Aitziber Aranburuzabalak gertu daude San Juanetarako.

24an eta 25ean egingo badituzte ere, aurreko egunetan egingo dituzten ohiko saioek ere San Juan usaina izango dute. Kontuan izan

gaurtik hasita San Juanetako egitarau barruan dauden hainbat ekitaldi izango direla, eta oraingo asteburuan, adibidez, egongo

dela zer kontatu, besteak beste, haur danborrada egingo dute-eta.

AHOTS BERRIA

San Juanetan ahots berria izango du Arrasate Irratiak: Mainer Arregi. 21 urteko oñatiar horrek, baina, badaki Arrasate Irratian lan egitea zer den, orain arte kolaboratzaile moduan ibili da-eta.

Saio bereziak ekainaren 24an eta 25ean egingo dituzte, baina gainontzeko egunetan ere San Juanak izango dira berbagai

Udako programazioa

San Juanek saio berezia egin eta egunerokotasunik aldentzeko balio dute, baina Arrasate Irratian hori baino aldaketa handiagoak izango dira egunotan. Neguko programazioa alde batera utzi eta udako programazioari heltzeko ere balio dute San Juanek; zubi lana egiten dute, hortaz.

Eta, udako programazioaren gainean egin digu berba Aitziber Aranburuzabalak, Arrasate Irratiko arduradunak: "Udako programazioak ez du esan gura gai serioak jorratu behar ez ditugunik, ezta gutxiago ere. Udan, baina, albistegiak magazinaren barruan daude; hori da aldaketetako bat. Horrez gain, bestelako gai eta musika aukeratzan dugu, eta saioen erritmoa ere bestelakoa izaten da. Azken baten, igarri egin behar da neguko atzean utzi eta udako programazioan gaudela murgilduta".

San Juanetako saio berezietan edo udako programazio freskoaz gozatzeko, 107.7an duzue Arrasate Irratia.

kurruxko

Javier Ayani Aramburuzabalaga
Okindegia - Urdaitegia - Gozotegia

*Ondo pasatu
San Juanak!*

Bañez Dokorea 12 • ARRASATE
Tel.: 943 79 22 57



TELEBISTA


San Juan jaien berri egunero GOITBn

Albistegietan San Juanen berri emateaz gain, 'Jaiak 2004' saio berezia egingo dute

XABIER URZELAI
Ibarreko telebista ere egongo da San Juanetan. GOITBk bertatik bertara emango du Arrasateko jai giroaren berri.

GOITBk: *Jaiak 2004*. Kepa Errasti aretxabaletarrak San Juanetan kalean izango den giroaren berri emango digu, eta berarekin batera hainbat lagun izango dira lanean, tartean, Oihan Vega eta Mikel Aranburu. Hirukote horrek hainbat erreportaje eta elkarrizketa egingo ditu, umore giroan betiere. Ekainaren 29an emitituko dute, 21:15ean eta 23:15ean.

Bergarako jaietan ere GOITBk jaien gaineko saio berezia egin zuen, eta orduan aurpegi berriak ikusi ahal izan genituen ibarreko telebistan lanean: Ainhoa Alberdi, Damian Madinabeitia eta Leire Iruin, hain zuzen. Eta, baieztatu barik bada go ere, baliteke kolaboratzaile horiek San Juan jaien



Kepa Errasti aretxabaletarrak aurkeztuko du San Juanetako *Jaiak 2004* saio berezia.

tan aurreko hirukoteari laguntzen ibiltzea. Gainera, jakin ezazue ibarreko telebistako ateak irekita daudela horrelako saioetan esku hartu gura dutenendako, eta, San Juan jaien ostean GOITB gai-

nontzeko herrietako jaietan ere izango dela; Elgetan, Aramaion eta Eskoriatzan, besteak beste.

ALBISTEGIETAN, SAN JUANAK
Goiena Telebistak San Juan jaien berri zabala

emango du eguneroko albistegietan. Gorka Etxabek aurkezten duen arratsaldeko lehenengo ordukoetan —14:30 eta 15:30— eta Deiane Arrietak aurkezten duen ilunkerakoetan —20:00 eta 22:00—. Ibarreko telebistako kamerak San Juanetako hitzordu garrantzitsuetan izango dira, eta, hain zuzen ere, ekitaldi horiek guztiak telebistan ikusi ahal izango

Goiena Telebista San Juan jaietan

MARTITZENA, 22

21:15: 'Eskuak elkarri'
Joan den asteburuan estreinatu zuten antzezlan musikatua GOITBn ikusi ahal izango da.

MARTITZENA, 29

21:15 / 23:15:
'Jaiak 2004'
Kepa Errastik gidatzen duen saioak San Juanetan kalean izango den giroaren berri emango du.

dira arratsaldeko eta gaueko albistegietan.

'ESKUAK ELKARRI', GOITBN

Nahiz eta San Juanetako egitarauaren barruan ez egon, izan duen arrakasta ikusita, GOITBk joan den astean Amaia antzokian estreinatu zen *Eskuak elkarri* antzezlan musikatua eskainiko du datorren martitzenean, ekainak 22. Ikuskizun hori Goikobalu abesbatzaren 15. urteurrena ospatzeko egin zuten, eta ondo ospatu ere. Ikuskizunean Goikobaluko abesbatzako kideek abesteaz gain antzezle lanak ere egin zituzten. Bada, ikuskizun horretaz gozatzeko aukerarik izan ez zuenari, Goiena Telebistak beste aukera bat eskainiko dio.

'Jaiak 2004' saio berezia emango du Goiena Telebistak ekainaren 29an, 21:15ean eta 23:15ean



Sikol

Olarte 31 - Arrasate. Tel.: 943 79 89 32

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko ekainaren 18a / 113. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

XVI. mendeko Baskonia aztertuko dute aurtengo udako ikastaroetan

UBANE MADERA

Datorren uztailearen 6an hasiko dira Aramaioko III. Udako Ikastaroak, eta lau egunez izango dira eskolak, uztailearen 9ra arte, hori ere barne. XVI. mendeko Baskonia izango dute aztergai oraingo honetan, sasoi hartako kultura eta gizartea, hain zuzen ere.

Uztailearen 6an, irekitze saioaren ostean, Juan Perez de Lazarraga poeta eta kronista izango dute hizpide. Lau berbaldi emango dituzte; tartean, EHUko Filologia eta Geografia Fakultateko dekan Joseba Lakarrak berba egingo du, baita Pruden Gartzia Isastik ere, Euskaltzaindiko liburutegiko arduradun eta historialariak. Horren ostean, mahai-ingurua egingo dute. Hirugarren egunean erabat aldatuko dute aztergaia; izan ere, Ameriketara joan ziren euskaldunak izango dira protagonista. 1500-1600 urteen artean izan ziren abenturazale, misiolari, ontzijabe eta armadoreen gainean berba egingo dute. Lau berbaldi izango dira. Tartean, EHUko Agustin Azkarate maisuak XVI. mendean Ternuan eta Labradorren izan ziren euskaldunen gainean berba egingo du eta EHUko histo-

rialari Oscar Alvarezek Amerika kolonialean bizi izan ziren euskaldunen gainean. Bukatzeko, uztailearen 9an, barikua, foru nortasunaren aurrekariak aztertuko dituzte. Adibidez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan foru-instituzioekin lotuta eman ziren aurreneko pausoen gainean berba egingo du EHUko irakasle J. Ramon Diaz de Duranak eta euskal nortasun politikoaren konfigurazioa berbagai izango du Nafarroako Unibertsitateko maisu Juan Madariagak.



Ohi den moduan, eskolak kultura etxeko zine-aretoan izango dira.

du hizpide. Horren ostean, mahai-ingurua egingo dute.

Hirugarren egunean erabat aldatuko dute aztergaia; izan ere, Ameriketara joan ziren euskaldunak izango dira protagonista. 1500-1600 urteen artean izan ziren abenturazale, misiolari, ontzijabe eta armadoreen gainean berba egingo dute. Lau berbaldi izango dira. Tartean, EHUko Agustin Azkarate maisuak XVI. mendean Ternuan eta Labradorren izan ziren euskaldunen gainean berba egingo du eta EHUko histo-

rialari Oscar Alvarezek Amerika kolonialean bizi izan ziren euskaldunen gainean.

Bukatzeko, uztailearen 9an, barikua, foru nortasunaren aurrekariak aztertuko dituzte. Adibidez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan foru-instituzioekin lotuta eman ziren aurreneko pausoen gainean berba egingo du EHUko irakasle J. Ramon Diaz de Duranak eta euskal nortasun politikoaren konfigurazioa berbagai izango du Nafarroako Unibertsitateko maisu Juan Madariagak.

Uztailean, abuztuan eta irailean zinema-emanaldiak izango dira

U.M.

Aurtengo oporretan, zinema ikusteko Gasteizera edo bestelako herrietara joan beharrean, Aramaion geratzeko aukera izango da. Izan ere, herriko zinema zaleen taldeak uztailean hasi eta irailean arteko zinema-egitaraua prestatu du.

Oraindik ez da segurua udan urteroko zinema-emanaldiak izango diren. Hori bai, dagoeneko ziurtatu digute barikuetako zinema-emanaldiek aurrera egin-

go dutela opor sasoiaren, baita abuztuan ere.

'EL SEÑOR DE LOS ANILLOS'

San Martin jaiaren ostean hasiko dira egitarau berriarekin. Hala, uztailearen 9tik aurrera, *Seabiscuit*, *más allá de la leyenda* eta *El Señor de los Anillos* trilogia arrakastatsuen hiru zatiak ikusteko aukera izango da.

Abuzturako, Ameriketako Estatu Batuetako lau film aukeratu dituzte: *Cuando menos te los esperas*; *House of Sand and Fog*; *Monster* eta *La sonrisa de Mona Lisa*, hain zuzen ere. Eta iraile-

rako bi film aukeratu dituzte: *Bajo el sol de la Toscana* eta *La joven de la Perla*.

Esan beharra dago udako orduetgia dela eta barikuetako zinema-emanaldiak 22:30ean hasiko direla, baita ekainekoak ere.

EKAINEN AZKENEKOA

Hain zuzen ere, ekainerako antolatutako filmetatik azkena emango dute gaur, barikua. Oraingo honetan, Clint Eastwoodek zuzendutako *Mystic River* filma emango dute. Sean Penn, Tim Robbins eta Kevin Bacon dira, besteak beste, filmeko protagonistak.

Zuiako Koadrilako txokoetarako ibilaldiak

U.M.

Inguruko hirigintza eta arkitekta historikoa ezagutarazteko helburuarekin, Zuiako Koadrilak hiru ibilaldi gidatu antolatu ditu datozen hilabeteetan egiteko. Hilero izango da hiru ibilaldiak egiteko aukera. Ibilaldietako bat Aramaioraino iristen da. Ibilaldiak goizetik eguerdira artekoak dira.

Urtegien Ibilbidea, Dorretxeen Ibilbidea eta Ur-jausien Ibilbidea. Horiexek dira Zuiako Koadrilak eskaintzen dituen aukerak.

Urtegien ibilbidean, Zurbano, Uribarri Ganboa, Legutiano eta Aramaio bisitatuko dituzte. Dorretxeen Ibilbidiaren bitartez, berriz, Zuia, Zigoitia, Elosu, Manurga, Murgia, Bitoriano eta Letona herriak bisita daitezke. Eta Ur-jausien Ibilaldiak, Urkabustaiz, Abornikano, Izarra, Goiuri, Beluntza eta Uzkiario bisitatzeko aukera eskaintzen du.

EGUN ERDI EDO EGUN OSOA

Lehen esan dugun moduan, hilero izango da hiru ibilaldiak egiteko aukera. Horretarako egutegia zehaztu dute: hileko hiru domeketan, irteera bat. Adibidez, oraingo hilari dagokionez, etzi, dome-

ka Ur-jausien Ibilaldia egingo dute eta hurrengo domekan Urtegien Ibilbidea. Uztailean, Ur-jausien Ibilbidea egingo dute aurreneko domekan, hilaren 4an; dorretxeena, hilaren 10ean eta ur-jausiena, hilaren 18an. Abuztuan ez dute ibilaldirik egingo, eta hurrengoak irailean eta urrian izango dira.

Ibilaldietako batzuk 09:00etan aterata eta 14:00-14:30ean bueltatzekoak dira. Ostera, beste batzuk egun osokoak dira. Lehenengo kasuan, hiru euro ordaindu behar da irteera; eta bigarren kasuan, 15 euro. Kasu bietan bisita gidatuak egiteko autobusa erabiliko dute eta hori prezioaren barruan dago sartuta. Bestalde, egun osoko ibilaldien kasuan, eskualdeko jatetxe batean bazkaria egitea kontuan hartu dute eta hori 15 euroko prezio barruan sartuta dago. Ibilaldi gehienetara jokatuko, Gasteizko Europa Gizarte Etxetik aterako da autobusa.

IZENA AURREZ EMAN BEHAR DA

Halako ibilaldien batean parte hartu gura duenak aldez aurretik eman behar du izena honako telefono honetan: 945 14 55 98. Dena dela, informazio gehiago behar izanez gero, Aramaioko Udaletxean eska daitezke edo Zuiako Koadrilan bertan.

LABUR

Bihar jokatu dute Mungiako pilotalekuan eskolarteko txapelketaren finala

Bihar, zapatua, jokatu dute Mungian Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketaren finala. Pilotalekuan izango da, goizez eta arratsaldean. Gogoratu beharra dago lehiakideen artean bi aramaiotar izango direla: Markel Arriolabengoa haurren mailan (beste 11 lehiakideekin batera) eta Iker Agirre gazteen mailan (beste hamar lehiakideekin batera). Unai Iturriaga ibiliko da gaiak jartzen. Bestalde, bihar bertan ere, baina Arrasaten, bertso saioa izango da Monteterran 22:00etan hasita. Partaideen artean, Manex Agirrek jardungo du.

San Martin jaietako kartel lehiaketako irabazleak aukeratu dituzte

Aurtengo San Martin jaietako kartel lehiaketan hiru irabazle izan direla jakinarazi digute. Aurreneko saria Xabier Igoak irabazi du bigarrena Julen del Campok eta hirugarrena Eukene Ugartek. Hurrengo sariok jaietan emango dituzte, eta kartel irabazlea ere ia orduan arte gordeko dute. Zorionak, hirurei!

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxi eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Izaritxoak duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

BOTEPRONTOAN/ Jesusa Bergaretxe · Etxaguengo auzo alkatea

“Lortu gura duguna da auzoa berritzeko proiektua egin eta auzotar guztiek onartzea”

Etxaguen aldera jo dugu oraingo honetan, Ipurtotz baserrira, hantxe bizi da eta Etxaguengo datozen lau urteotarako alkatea: Jesusa Bergaretxe. Hark eman digu auzoko zenbait konturen berri:

Etxaguenen bizi zara, baina hemengoa zara?

Arrasaten bizi izan naiz urtetan, baina Ipurtotzen jaiotakoa naiz, eta orain hemen bizi naiz.

Etxaguenen zela izendatzen duzue auzo alkatea?

Orain arte, aukeratuta, baina azkeneko bozketan erabaki zuten etxeka egitea, txandaka. Etxe bakoitzak erabakitzen du gero zein izango den auzo alkate. **Lehenengo aldiriz auzo alkate? Ilusionatuta, ala?**

Lehenengo aldia da, bai, baina ez daukat batere ilusiorik. Ardura galanta. Sarri egon naiz gauetan lo egin barik.

Lan zaila duzu aurretik?

Lan asko egin beharra dago. Auzoa dago oso abandonatuta. **Zer, saneamendu arazoak...?** Ez, saneamendua egin zen. Orain berritu beharrean dago. Leku batzuetan apurtuta dago,



baina, arazorik handiena putzu beltza da. Hura egin zuten tokira joateko biderik ez dute kamioiek, hura garbitzeko... Eta arazoa da auzoan ezin garela

elkarren artean konpondu bidea egiteko.

Zeuk badaukazue proposamenik-edo?

Oraintxe gabiltza proposamenak aztertzen bidea lehen dagoen lekutik konpontzeko-edo. Asko kostatuko da... Proiektu batzuk egin guran gabiltza, baina horretarako auzokook ados jarri behar dugu, beharrezko baimeak eman behar dituzte... Eta hori ez dugu lortu. Akordiorik ez dagoen artean, auzoa nahiko abandonatuta egongo da.

Hortaz, urbanizazioa egitea-eta falta zaizue, baina, ez da Udalaren kontua auzotarren arteko ezadostasunarengatik da...

Hori da; dena dela, Udalak ere ez ditu gauzak samur; Diputazioak onartu egin behar dizkio gauza asko eta aspaldi honetan apenas etortzen omen da dirurik Diputaziotik, euskaldunak dezente baztertua gaude-eta. Edozelan ere, gure artean adostasuna lortu izan bagenu akaso eginda egongo ziren gauza asko, proiektuak orain dela urte asko egindakoak dira-eta: urbanizazioa, putzu beltza,

“Ardura galanta da auzo alkate izatea. Sarri egon naiz gauetan lo egin barik”

saneamendua... Bestalde, errepidea ere guztiz abandonatuta dago, baina hori konpontzeko eskaera egin dugu: hesiak eskatuta daude, bide bazterrak konpontzeko eskaera eginda... Diputaziotik dirua iristeko zain gaude. **Hortaz, auzoko gaizki-uler-zeek zaildu egingo dizute auzo alkate lana?**

Bai, zenbaitzen arteko gaizki-uler-ze horrek ia denean du eragina. Dena dela, auzotarrak askotan egoten gara elkartean, afariak-eta sarri egiten ditugu eta giro ona izaten da gure artean. **Auzokoei zer esango zenieke?** Elkarren artean konpondu egin behar dugula zela edo hala.

Baster-alde jatetxea

- Zure ezkontza eguna ospatzeko leku eta giro paregabea daukagu.
- 160 lagunentzako jangela eta aparkalekua.
- Terraza berria ahur parkearekin.
- Enpresa bazkariak jangela pribatuarekin.
- Bataioak, jaunartzeak, urtebetetzeak eta lagun arteko bazkariak.

Karta eta menua ditugu aukeran.

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel./Faxa: 943 79 24 58



ERRETRATUZHARRA

San Juanetako
hirugarren
eguna nagusi

Etxeko argazki-bildumetan antzinako San Juan jaietako argazkiei begiratu bat emanez gero, detaile batekin konturatuko gara gehienetan: argazki asko (gehienak, normalean) San Juan jaien hirugarren egunean ateratakoak izaten zirela.

Horrek badu bere arrazoia. Kontua da, oraingo jai askotan moduan, antzina ere Arrasaten argazkilaria ibiltzen zela kalean. Hala, han inguruan zebilen jendea hartu eta kamera aurrean ipintzen zuen, argazkia ateratzeko. Gure berriemaileak kontatu digunez, berdin izaten zen lagun-talde bereko kideak izan edo ez; gertuen zuen jendea harrapatzen zuen eta beste barik argazkia ateratzea zen argazkilaria ohitura.

Argazkiko gura lagunak ere halako batean harrapatu zituzten. Argi ikusten da euren artean dagoen adin desberdintasuna. Esan digute argazkia 50eko hamarkadako dela. Eta honako hauek agertzen diren ondoko argazkian: goian, ezkerretik hasita, burua aurrekoaren sorbaldatik erakusten dabilena Miren Gorroñogoitia da, ondoan duen emakumea, berriz, Milagros Fernandez; haien ondoan dagoen mutila Luis Lasagabaster da eta, ilara berari jarraituz, hurrengo dagoen emakumea Julita Andes da. Gero Edurne Vitoria dator eta Maribel Sanz ondoren. Izkina-izkinan dagoena,



buruan lorea duena, ezezaguna da.

Beheko ilarari begiratuta, lurrean eserita dagoena Jose Antonio Altuna Txatillo da (Arrasateko alkate izan zen 1976ko maiatzaren 31tik 1979ko apirilaren 19ra arte). Jose Antonio Altunaren ondoko emakumea Juventina Perez da eta hura baino apur bat

gorago dagoen mutikoa Jose Maria Lete. Hurrengo mutila Musakolakoa da, baina ezin izan digute haren izenik esan, eta hurrengo emakumea, berriz, Pili Andres (Julita Andresen ahizpa). Azkeneko mutikoa ezezaguna da.

Bitxikeria moduan, esan digute argazkian ikusten diren orrazkeretako

batzuei ondo eusteko buruko finkatzailerak erabiltzen zutela; orduan ez omen zegoen bestelako produkturik.

Argazkia: artxiboa.

Informazioa: Maria Teresa Muxika.

Urtea: 50eko hamarkada.

MENDIZABAL okindegia

egunero zure alboan!

ARRASATE

Seber Altube 2

943 79 89 60



1907tik...

Maalako Errabala, 3
20500 ARRASATE
Telf-Faxa:
943 791262

Casa Cenciaga

Lentzeria
Mertzeria
Puntuzko osagaiak

Jai zorientsuak opa dizkizugu!

**Aitor
Belardenda**

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE
943 79 90 43


ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritate eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea 10 Tel.: 943 79 48 77 ARRASATE

Chume

Apainketa



Etxe giroan

GRUPO RKUZ

1950
Zure etxea da
2004




ARKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




ARKUZ
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3
Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ARKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



expert

FAGOR